

uk

106. zenbakia / 2006 urriak 1





ezagutzera eman!

## UK galeria > Jabi Baraiazarra



Euskal filologia ikasketak egin zituen Jabi Baraiazarra (Areeta, 1961). Irakasle lanetan urte bi eman eta gero ETBn hasi zen beharrean 1989an, kiroltako erredakzio laguntzaile lanetan. Han jarraitzen du gaur egun ere. Baina mendia eta natura dira Baraiazarren pasioak. Gazte-gaztetik hasi zen eskalatzen eta mendi argazkiak egiten. Baina lan honi seriago ekin dio azken bost urteotan. Izan ere, *7 paretak 7 kontinente* izeneko ekimenean Pou anaia mendigoizale gasteiztarrekin munduko hainbat bazterretan ibili da Baraiazarra irudiak jasotzen. Argazkiak ez eze, espedizio hauetako lau dokumental eginak ditu: *Madagaskar*, *Tasmania*, *Frango* eta *Patagonia*. Frango Torelló mendi festibalean saritu zuten eta *Tasmania* Edimburgon laster egin behar den sail ofizialerako aukeratu dute.



Pou anaia, Urriello haitz-punta (Asturias)

«Lagun andiyekin, orduak lasai» Euskal esaera zaharra

## Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Erdi aroko azoka. Peru Urresti.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako Zugatzarte etorbidea.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Imanol Barberia eta Josu Bolunburu.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

### SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Getxoko akuaria, Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. Meñakotz, Willy Uribe.
- 30. BERBETAN. Markitos Bretos, Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. Antzinako Getxoko postalak.

### KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. *Kutsidazu bidea* Ixabel filma.
- 43. MUSIKA. Areatxu fanfarrea. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Gianni Calati idazlea euskaraz. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLAK. Jolaseta hockey taldea.

### EUSKARAZ


- 46. ELKARRIZKETA. Blanca Oraa margolaria.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Sopelako El rincón Cubancora.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Areetako Raspas arraun taldea, 1940.
- 54. AITORMENAK. Julian Azkarate.



30 Markitos Bretos



21 Eunate Agirre

### Berbetan

Markitos Bretos Portu Zaharrari xama emoten dion pertsona horietako bat da: ezin bata bestea barik ulertu.



34 Antzinako postalak



46 Blanca Oraa



14 Patxi Garate



54 Julian Azkarate

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte

HELBI BIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran

FOTOGRAFIA: Asier Mentakoa

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egurrola,  
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana,  
Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Arriaga, Berbots Erandion  
Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko  
herri aldizkari eta euskara elkarte  
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



# gugeu

## Iparraldea Getxon

**Iñaki, ze urrun dago Kamerun!** abesten zuten Zarama taldekoek aspaldian.

Kamerun urrun dago bai, baina Iparraldea deitzen duguna gugandik autoz ordubetera baino ez dago. Hala ere, nahiz eta herri beraren zati izan, urrun, urrunegi sentitzen dugu Iparraldea. Madrilen edota Bartzelonan gertatzen denaz ia dena jakin dezakegu, baina Baionako edota Mauleko berririk apenas daukagu. Lehengo muga fisikoa gauza batzuetarako kendu bazuten ere, ez dago ukatzerik beste batzuek oraindik ere irauten dutela gaur egun, azken batean estatu desberdin biren aginpean bizi gara. Hala ere, muga horietako asko oharkabean guk geuk ezartzen dizkiegu geure buruei. Horrek zera esan gura du: ez dugu inolako ahaleginik egiten Iparraldearen berri edukitzeko, han egiten dena ezagutzeko, hango ekimenak jarraitzeko...

Muga horiek apurtzeko hain zuzen ere, ekimen txalagarria bultzatu du Getxoko Euskara Zerbitzuak Euskal Kultur Erakundearekin batera: *Iparra galdu gabe*. Urriaren 3tik 8ra bitartean, ipuin kontalariak, kontzertuak, foie eta ostren dastaketak, kantu afariak... egingo dira Getxon. Iparraldetik etorritako lagunek eskainiko digute hau guztia. Aukera ederra daukagu egun horietan Iparraldea hobeto ezagutzeko, batzen gaituen euskararen bestelako doinu goxoak entzuteko, zubiak eraikitzeko...

Aprobetxa ezazu! 4

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua




Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

## Patua

“Urkatua hiltzeko jaio dena ez da itota hilko” zioen Thomas Fuller XVII. mendeko idazle ingelesak. Esaldi motz eta biribil honek, zelan edo halan, patu edo halabehararen indarrak ohartarazten gaitu. Ni, aldiz, hurbilago nago Schopenhauer-ek esandakotik: “Patuak nahasten ditu kartak, jokua gure esku dago”. Mus partida batean karta guztiak aldatzeko aukera oso gutxitan dugun era berean, bizitzan ere patuak emandako kartekin jokatzeko beste erremediorik ez dugu izaten. Beti? Ez, beti ez. Nik ezagutzen dut bikote zoragarri bati esker karta txar guztiak aldatzea lortu duen 6 hilabeteko umetxo bat, Afrikako herri galdu batetik gurera etorri dena.

Bejondeiela! 4



ALGORTA, 2006KO IRAILAREN 16A

**Erdi Aroaren xarma /** Harritzekoa da zelan, Internet eta teknologia berrien garai honetan, hau da, orain dela urte batzuk pentsaezinak ziren gauzak ikustera ohituta gauden informazioaren aroan, Erdi Aroko ikuskizun sinple batek pertsona batzuk liluratzen dituen oraindik. Ikusi bestela ezkerreko gizona sugoari begira, txundituta. Umetxoak bezala, aho bete hortz geratu da “fakiraren” aurrean. Egia izango ete da erretiroa bigarren haurtzaroa bizitzea legez dela? Horrela bada, ongi etorria hainbeste urteren buruan merezitako deskantsua! m / Argazkia: Peru Urresti

# itsasoa<sup>ren</sup> inguruan



Argazkia: Juan Gómez

Alfredo Aldai / Jon Bernardez / Aitor Galbarriartu / Juan Gómez / Juan Luis Markaida

## Satistegi kafea / iraila-urria 2006

Javier Martínez Llona / Mikel Martínez / Oskar Martínez / Asier Mentxaka

URIBEKOSTAKO ARGAZKILARIEN KOLEKTIBOA



[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / ZUGATZARTE ETORBIDEA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**uribitakora** > Gorrondatxen azken bainua hartu eta gero

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Amaitu da beroa,  
amaitu da uda,  
kresalaren usaina  
lurrun bihurtu da,  
nahiz sarri haitzetara  
ailegatu ura  
lurrak irabazi du  
olatuen guda.

Olatuen zabua  
oraindik ari da,  
baina ibiltaririk  
ez dago, begira,  
hondarra leun dago,  
laua da guztira,  
azken oinatzak ere  
ezabatu dira.

Gorrondatxe, Azkorri,  
izan bat, bi izen  
orain biluzik zaude,  
jendea joan zen  
hondartza nudista bat  
hori da hain zuzen,  
berriz jantziko zara  
biluztu daitezen.

\* Doinua: Amaren bularra

**zinema** > Mamba izeneko pelikula filmatuko dute eskualdean

**Hil honetarako iragarri dute** Mamba film luzeko grabazioak egiten hasiko direla eta Urdaibain (Mundaka), Bilbon eta gure eskualdean hartuko dituztela irudiak: Sopela, Getxo, Gortiz eta Plentzian. Mundakako eta Sopelako herritarren artean dagoeneko egin dituzte *casting*-ak. Azaldu dutenez filmaren istorioa hurrengoan datza: “Mamba iragan iluna daukan antzinako mahai joko bat da, ikasle iparramerikar talde batek “jolasa” aurkitu eta jolastea erabakitzen dute, haren jatorri misteriotsua eta daukan botere eztukuak ezagutu barik”. Gazteei begirako gore film bat ei da, protagonista nagusiak Eliza Dushku eta Mike Vogel dira, eta Alvaro de Armiñan zuzendariaren lehengo lan luzea da. Ingelesez grabatuko dute. m

**bisita** > Ander Deuna ikastolako ikasleak UK-n

Ander Deuna ikastolako ikasleak UK aldizkariko bulegoan

**Urtxintxa** aisialdi eskolaren bitartez, irailaren 12an eta 14an Sopelako Ander Deuna ikastolako 30 ikasleren bisita duki genuen UK aldizkarian. Uribe Kostako euskararen diagnosiaren inguruko lana prestatzen dabilta DBHko lehenengo mailako gaztetxoak eta, beste ekintza askoren artean, inguruko euskarazko komunikabideetara zein elkarteetara (Koska Irratia, UKberri.net, Egizu Getxo Euskaldun!...) txangoa egin zuten joan den hilean. Esan bezala, gurean ere egon ziren 11 eta 13 urte bitarteko ikasleak eta, besteak beste, aldizkaria zelan maketatzen den, argazkilararen lana nolakoa den eta albiste iturriak zeintzuk diren ikusi ahal izan zuten. Azalpenak adi-adi entzun ondoren, euren ondorioak atera beharko dituzte eskualdeko komunikabideetako euskararen presentziaren inguruan. Horrez gain, Sopelako dendetan gure hizkuntzaren erabilera aztertu beharko dute. m

**urteurrena** > Etorkizuna taldeak 30 urte bete ditu irailean

Etorkizunaren iragana eta oraina alkarregaz argazkirako

**Joan** den irailaren 9an Etorkizuna taldeak bere 30. urteurrena ospatu zuen bazkari batez. 1976an Algortako 190 gaztek osatu zuten taldea herriko skouten bilgune da gaur egun. Izan ere, 70. hamarkadako gaztetxoek sei begiraleren zaintzapean dauden haurrei eman zieten paso orain dela urte batzuk eta zapaturu elkartzen dira jokoak, tailerrak zein mendi irteerak egiteko. Beraz, Etorkizunaren urtemuga zela ikusita, taldearen iragana eta oraina bilduko zuen jateko erraldoia eta argazki erakusketa prestatzea pentsatu zuten arduradunek. Ekitaldiak Bihotz Alai plazan burutu zituzten eta adin guztietako 180 bat lagunek parte hartu zuten. Ospakizun polita izan zen, zeinetan antzinako kideen kontakizunak eta oroitzapenak talde garaikidearen esperientziak nahastu ziren. Zorionak eta urte askotarako! m

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



...haria



...lehenengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

## euskarazko telebista > hamaika telebista hedatzeko taldea



Ezkerretik eskuinera: Iñaki Alzaga (CMN), Mikel Astorkiza (Euskaltel), Juanjo Landa (Bainet), Joanmari Larrarte (EKT), Joxemari Sors (Elkar) eta Gorka Altuna (EHKE).

**Euskarazko** tokiko telebistak abian jartzeko *Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea* sortu berri dute CMT (Deia, Noticias), EHKE (Gara, Le Journal), EKT (Berria, Hitza), Elkar, Euskaltel eta Bainet ekoiztetxeak. Gure etxeetan Euskal Herritik kanpo ekoiztutako gero eta telebista kate gehiago sartzen dela ikusita, euskara telebista eremura ahalik eta gehien zabaltzea gura dute, lurreko telebista digitalen hedadura aprobetxatuz. Horretarako, Jaurlaritzak EAEn lizentziak banatzeko deialdia egiten duenerako prest egon gura du *Hamaika*-k, beragaz parte hartu gura duten tokian-tokiko eragileak proiektuak prestatzeko. Behin kateak abian jarri direnean hasiko dira horiek hornitzeko programa eta informatibo amankomunak ekoizten. m

**ZAMUDIO**      *bapatean bizkaia*  
urriak 8, domeka      Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 06  
17:30ean. Kiroldegian

Beñat Ugartetxea  
Gorka Ostolaza  
Eneko Abasolo  
Amaia Uribe  
Miren Ibarluzea  
Mikel Galarza

[erretratu]



## Imanol Barberia & Josu Bolunburu > zirgarien “nagusiak”

**Irailaren 10ean** laugarrenez egin zen, Areetan, zirgarien lana gogoratzen digun herri antzerkia. Josu Bolunburu eta Imanol Barberia dira, hain zuzen ere, ekimen horren arima eta bihotza. Sortzez Deriokoa bata eta Billbokoa bestea, biek darioz 30na urtetik gora Getxon. Bolunburu, hain zuzen, Erromoko Jentilak kultur taldeko kidea da, eta harengan ernatu zen lehenengoz zirgarien oroitzapena berreskuratzeko ideia. *“Hemengo txoko batean ikusi nuen, behinola, zirgarien lana agertzen zuen 1968ko litografia bat”,* diosku, *“eta bide horretatik jotzea erabaki nuen”.* Oro har, Euskal Herriko bestelakotasunaz dauka ardura Bolunburuk, *“gáinbehera dago eta”.* Hala, helburuetako bat *“Erromoko hainbat talde euskal kultur adierazpen baten inguruan elkartzea da”.* Barberia, berriz, Euskal Herriaren historiak erakartzen du; horren jakitun, Bolunburuk lankidetzan proposatu zion, eta hala jaio zen urterik urte haziz joan den ekimena. Antzezlan da muina, eta hark bere horretan iraun du hasieratik, Getxoko Antzerki Eskolaren laguntzaz. *“Haienak dira gidioia, zuzendariak eta aktore nagusiak”,* dioskue. Hurrengo aldietan, dantzak eta kantak sortu ziren zirgarien erakustaldirako beren-beregi, eta aurton Barberiak berak izenpetutako liburua eta film laburra plazaratu dituzte, *“abalegin handiz”,* azpimarratu dutenez. Biek ere segitzeko asmoa agertu digute, baina oraindik ezin esan zer berrikuntza egingo duten datorren urterako, egingo badute. Ondinokaren ez dira-eta guztiz osatu akabuko antzezpeneren estresaz. m    Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

# Sendi proiektua 06/07

Egizuk eta Udalak garatutako egitasmoa urrian ipiniko dute martxan **belaunaldien arteko hizkuntz transmisioa** bultzatzeko asmoz, eta gain-gainez **guraso getxoztarrei** dago zuzenduta

**Laster aurkeztuko dute Sendi proiektua. Belaunaldien arteko hizkuntza transmisioaren alde lan egitea da egitasmoaren helburua, horregatik ume getxoztarren gurasoak dauzka jomuga. Horretarako hanbait ikastaro prestatuko dituzte.**

**Getxoko** umeen gurasoek euskara erabiltzea eta belaunaldien artean euskararen transmisioa bultzatzea da Sendi proiektuaren asmoa. Egizuk eta Getxoko Udalak elkarlanean garatuko duten egitasmoa ikastetxe getxoztar guztietan matrikulaturik (A, B eta D ereduak) dauden ikasleen guraso eta, oro har, udalerrian bizi diren guraso denei zuzenduta dago. Egitasmoa aurrera eramateko, hiru ekimen mota prestatuko dituzte: ikastaroak, mintzapraktika taldeak eta euskara ikasteko gurasoentzako dirulaguntzak.

Ikastaroak dagokienez, lau eskainiko dituzte: euskal kantuak, euskal jolasak, ipuinak umei zelan kontatu eta *Gurasoak lagunduz* lantegiak, hain zuzen.

Euskal kanten lantegian haurren kantak eta herri abestiak landuko dituzte (sehaska kantak, kanta-jokuak, dantza-jolasak...); azaroan San Nikolasen eta urtarrilean Erromon emango dituzte eta 10 euroko prezioa dute (izen-ematea: urriak 16-23 eta abenduak 11-18).

Euskal jolasen ikastaroa urrian Erromon eta Zabalen eskainiko dira eta otsailean Andra Mari eta Gobelan. Matrikulak 10 balio du.

Ipuinak umei zelan kontatzeko lantegiak bi saio desberdin edukiko ditu, bata gurasoak bakarrik eta bestea seme-alabak eta gurasoak batera. Lantegia abenduaren 13an eta 14an



Ikastetxeetan edota liburutegietan eskainiko dira ikastaroak

Areetako liburutegian emango dute eta apirilaren 24an eta 26an Villamonteko liburutegian. Jardunaldi honek ere 10 euroko prezioa dauka (izena emateko epea: azaroak 20-30 eta martxoak 12-23).

## «Ikastaroak antolatu eta mintzapraktika taldeak osatuko dituzte»

Azkenik, umei etxeko lanak egiten laguntzeko ikastaroaren gainean, horren helburua ez da gurasoei euskara irakastea, guraso euskaldunak zein euskara apur bat dakitenak trebatzea baino, txikien eskolako beharrak ulertzeko eta horiek egiten lagundu ahal izateko. Astean hiru orduko ikastaroak dira, egun bitan, urtariletik maiatzera emango dituzte euskaltegiren batean eta 60 euro kostatzen dira (izen-ematea: abenduak 4-19).

## Gurasolagun

Ekimenean bi urteko umeak dauzkaten gurasoen artean mintzapraktika taldeak osatzen datza, guraso euskaldun berrien eta zaharren artean euskaraz jarduteko. Astean ordubetez eta Andra Mari, Geroa, Gobela, San Nikolas, Zabal eta Zubileta ikastetxeetan izango da (izen-ematea: urriaren 20ra arte). m

## Datu batzuk

- **Norentzat:** Getxoko gurasoentzat.
- **Zer:** Euskal kantak, euskal jolasak, etxeko lanak egiten laguntzeko eta ipuinak zelan kontatu ikasteko lantegiak, eta *Gurasolagun* mintzapraktika taldeak.
- **Informazio gehiago:** [www.blogari.net/sendi](http://www.blogari.net/sendi)
- **Harremanetarako:** 94 491 43 57 edo [sendigetxo@yahoo.com](mailto:sendigetxo@yahoo.com)
- **Dirulaguntzen gaineke informazioa:** 94 466 00 10 edo [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## Iparra galdu gabe jardunaldiak bigarren aldiz hilaren 3tik 8ra



Jardunaldiak iragartzen dituen kartela

**Ipar** Euskal Herria Getxon ezagutaraztea eta gurera hurbiltzea helburu duten jardunaldiak orain bi urte antolatu zituen estreinekoz Euskara Zerbitzuak, bi urtean behin prestatzea erabaki zuten orduan, hala, aurton dute getxoztarrek berriro Iparaldeagaz hitzordua.

*Iparra galdu gabe* jardunaldiotan, ekintza eta ikuskizun desberdinak iragarri dituzte, horra hor urriaren 3tik 8rako egitaraua: euskal kondairetan oinarritzen den ipuin kontalaria Xan Errotabehereren emanaldia (hilak 3-4, institutueta), Maialen Errotabehereren *"Nere munduak"* azken diskoko abestiak kontzertua (hilak 4, 20:00, The Piper's Irish Pub), La

Maison Dufrexe etxeko foie dastaketa (hilak 4, 19:00, Piper's), Lucien Etchezaharreta kazetari eta Maiatz literatura aldizkariko zuzendariaren *"Mende erdia Iparaldeko literaturan"* hitzaldia (hilak 5, 19:00, Itxasgane), Niko eta Dominika Exarten eta Larrandabururen kontzertua eta ostan euren kantua aforia (hilak 6, 20:00, Satistegi plaza; aforirako txartelak: 15 euro), Burrunka taldearen gaita eta perkusio kale animazioa (hilak 7, 12:00 eta 18:00, Geltoki plaza), ostren dastaketa (hilak 7, 11:00-20:00, Geltoki plaza) eta azken ekitaldia *Batek mila* ikuskizun bikaina izango da (hilak 8, 19:00, Getxo Antzokia, 6 euro). m

## GALDARETXEKO LANAK GELDITZEKO ESKAERA

Udala Ereagatik Portu Zaharrera, Galdaretxen, egiten dabilen lanak eta egitasmoa gelditzeko eskatuz Deuseztasun Akzioa aurkeztu zuen udaletxean Getxo Bizia plataformak abuztuaren 14an. *"Aintzat hartuko ez balute epaitegietara joko genuke"*, diote plataformakoek. Eskaeraren zergatia ere argudiatu dute: ez dute aurretiaz egin beharreko ingurugiroaren gaineko ikerketarik egin; proiektua ez dator guztiz bat Getxo Hirigintza Antolatzeke Plangintza Orokorrarekin; Ez dute kontuan hartu Ereaga Kaiak duen Monumentu Historiko izaera (Aldundiaren aldeko txostena lanak hasi eta gero jaso zuten); proiektuaren berri ez da jendaurrean eman; eta Kostaldearen dinamizazio buruzko oinarriko ikerketa eta Kosten Legea betetzen den adierazpena falta ditu. *"Greenpeacek egindako salaketa eta Getxoko Ingurugiro foroak eskatutakoa (lanak gelditu eta proiektu berri bat egitea) mesprezatu du Udal Gobernuak"*, gaineratu dute plataformatik. Getxoko Alkate Iñaki Zarraok prentsari adierazi dionez, *"Aldundiak proiektu ereduak dela uste du eta 1.000 metro koadro eskasako eremurako ingurugiroaren azterketa ez da beharrezkoa; bestalde, HAPOrri buruz, ingurunea oinezkoen erabilerrako dela esateak ez du esan nahi eurentzat bakarrik denik"*.

Galdaretxe ingurua



**ERROTULOAK**

**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK**

**egiten ditugu**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**Egunkariak prentsa eta aldizkariak**

*nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!*

**Euskal Tonbola** Euro baten truke mila sarri!!!

Dai

KONTSEILUA

Txartelak salgai Bizkaia osoko tabernetan

**1€**

## Jabekuntza

Eskolak **ikastaroak** eskainiko dizkie urrian **emakumeei**

**Lau hezkuntza** ataletan oinarritutako hezkuntza eskaintza zabaldu du aurten ere Getxoko Udaleko Berdintasun Arloak, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan: Nortasuna eta Subjektibotasuna atalean, *Mi yo femenino* eta *Nosotros las mujeres: un sujeto para el cambio*, Komunikazio atalean, *Comunicación para la igualdad*, Partaidetza soziala eta politikoa atalean, *La participación política de las mujeres* eta, azkenik, Elkartzasuna eta munduko emakumeekin trukea atalean, *Literatura de mujeres en el mundo*. Horrez gain, iraupen laburreko ikastaro bi eskainiko ditu: *Liderazgo y trabajo en equipo* eta *Maitasuna ez da kontatu ziguten bezala*.

Politika arloan eragina izan dezaten emakumeen partaidetza soziala eta politikoa sustatzea da urrian hasi eta maiatzean amaituko diren Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikastaroen helburua. Joan den ikasturtean 350 emakumek eman zuten izena parte hartzeko. Ikasleen adinaren batezbestekoa 48 urtekoa izan zen; %35 elkarteren bateko kide eta %56k unibertitate ikasketak zituen bitartean, %17k ikasketa profesionalak zituen.

15 dira maila bakoitzean eskaintzen diren tokiak eta Getxon eroldaturiko emakumeak soilik onartuko dira. Era berean, ikasle bakoitzak mintegi bitan eman ahal izango du gehienez izena. Ikastaroen prezioa 5 eurotik 15 eurora bitartekoa da eta, aurten ere, EHUK aukera askeko kredituak emango dizkie eskolara doazen ikasleei. <sup>m</sup>

Informazio gehiago: 94 466 01 30

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Patxi Garate** > musikazalea

“Interneten topatu nuen lautea nire kabuz etxean egiteko metodoa”



Patxi Garate amaitu berri duen lauteagaz

**Patxi Garate algortarrak laute bat erostea oso garestia zela ikusita, bere eskuakaz bat egiteari ekin zion birritan pentsatu barik. Joan den uztailaren 7an amaitu zuen lana, San Fermin egunean. Egur mota piloa erabili du horretarako: astigarra, hagina, Alpeetako izeia, Japoniako gereziandoa eta zedroa.**

—Zergatik erabaki zenuen laute bat egitea?

—Betitik gustatu izan zait musika, klasiko bategi ere. Lautea ezagutzen nuen, baina oso arreta gutxi eskaintzen nion. Behin, Bachen lan bat entzun nuen, zeinetan musika tresna hori erabiltzen zuten eta gehiago entzuteko grina piztu zitzaidan. Gainera, musika horrek entzuteak ezagutzen ez nituen musikagileak entzutea eraman ninduen. Laute bat nire eskuetan edukitzeko irrikan, Interneten bat egiteko metodoa bilatzea erabaki nuen, erostea oso garestia delako. Metodoa topatu nuen eta urtebete ibili naiz horrekin beharrean. Arratsaldero ordu bi ematen nituen tresnagaz.

—Oso gaxa da horrelako zerbait egitea?

—Behin amaituta, ez nuke esango gaxa de-

nik. Kontuan eduki beharra dago, ni ez naitzela arotza, ez daukadala esperientziarik, baina betitik gustatu izan zait horrelako gauzak egitea. Orain dela urte batzuk, beste tresna bat egin nuen: klabezin bat. Egurra ez zen egokia, baina bukatu eta jotzeko moduan geratu zitzaidan.

—Zer da lautea?

—Antzinako tresna da, badirudi Indian daukala jatorria eta European Erdi Aroan sartu zela. Oso tresna erabilia izan zen gure kontinentean. Hasieran, erregeek eta jauntxoek jotzen zuten, baina denboragaz herritarren artean ere zabaldtu zen. Tresnaren eboluzioa handia izan da: pizkundean, esate baterako,

**«Hasieran, erregeek eta jauntxoek jotzen zuten lautea»**

sei hari zituen eta, gaur egun, 13 ditu. Hari batzuk bikoitzak dira eta aldi berean jotzen dira. Irakurri nuen behin “laud” berbak arabieraz egurra esan gura duela. Hain zuzen ere, hasieran egur bat hustutzen zuten tresna egiteko, baina gero kupela balitz bezala egiten hasi ziren. <sup>m</sup>

## Gora oihala!

**XXIV. Antzerki jardunaldien** egitarauak  
**14 antzerki lan** iragami ditu, **9 euskaraz**



Ordaintzekoak diren antzerki lanen sarrerak dagoeneko salgai daude

**Hilaren 12tik 15era eta 20tik 22ra** egingo dira aurton XXIV. Antzerki jardunaldiak, hori dela eta egun horietan Euskal Herriko antzerki taldeen gaurko lanak ezagutzeko aukera izela eduki-ko dute Getxora bertaraten direnek. 14 lan eskainiko dira, horietatik 9 euskaraz gozatzeko aukera egongo da; horra hor oholtzaratuko dituzten antzezpenak: hilaren 12an *Amor desmadré* (Popotamos teatro, Geltoki plaza, 19:00, gaztelerez); biharamunean *Arte* (Txalo, Getxo Antzokia, 20:00, euskaraz, 7/9 euro); hilaren 14an *Cuenta conmigo / Beti lagun* (Rosa Martínez, Andres Isasi Musika Eskola, 12:00 gaztel., 18:00 eusk., 3,50 euro), *Indioen lurnaldea* (Potxin eta Patxin, Geltoki plaza, 13:00, eusk.) eta *Buen viaje* (Pok, Getxo Antzokia, 20:00 gaztel., 7/9

euro); hurrengo egunean *Pimotxo* (Dar-Dar, Andres Isasi Musika Eskola, 12:30 gaztel., 18:00 eusk., 3,5 euro) eta *Tsaribari* (Panta Rhei, Geltoki plaza, 13:00, eusk.); hurrengo asteko barikuan *Zeta* (Hika, Getxo Antzokia, 19:30 eusk., 22:00 gaztel., 7/9 euro); hilaren 21ean *Herrialde urdina* (Azika, Andres Isasi Musika Eskola, 12:30 gaztel., 18:00 eusk., 3,5 euro), *Zintzoaren ametsa* (Kalean, Geltoki plaza, 13:00 eusk.) eta *El Chico de la última fila* (Ur, Getxo Antzokia, 20:00, gaztel., 7/9 euro). Azkenik, jardunaldiak hilaren 22an agurtuko dituzten emanaldiak hauek izango dira: *Bazen behin zirkoa* (Zinka Zirkus, Andres Isasi Musika Eskola, 12:30 gaztel., 18:00 eusk., 3,50 euro) eta *El Písto* (Triapu zaharra, Geltoki plaza, 13:00, gaztel.). <sup>m</sup>

**GETXOKO EKOMA TEATRO TALDEAK ARGENTINAN ETA URUGUAIN JARDUNGO DU**

Ekoma Teatro taldeak *Palascarra y un camino* lana antzetzuko du urriaren 6tik 15era arte Hegoamerikako hainbat nazioarteko jaialditan. Besteak beste, La Platako (Argentina), Mar del Platako (Argentina), Colongo (Argentina), Saltoko (Uruguay) eta Barneko Mercosurreko (Uruguay) nazioarteko antzerki jaialdietan parte hartuko du talde getxoartzarrak. Bizitzan zehar aukeratu beharreko bideen inguruan eta mina abisatu barik heltzen denean egin beharrekoaz berba egiten du antzezlanak. Egileen esanetan pasiatzeko, jesarteko, begiratzeko eta hautatzeko tragikomedia da *Palascarra y un camino*.

**YOGA IKASTAROA EUSKARAZ ESKAINIKO DU EGIZUK**

Aurten ere, yoga ikastaroa euskaraz eskainiko du EGIZU Getxo Euskaldun! elkarteak. Urriaren 2an hasiko da eta Algortako San Nikolas ikastolan izango dira eskolak, astelehen eta eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara. Ikastaroak ekaina arte iraungo du eta Hasier Rekondo izango da irakaslea. Prezioa, berriz, 30 eurokoa izango da hilabete bakoitzeko (25 eurokoa berbalagunentzat eta elkarteo bazkideentzat).

**IV. BIHOTZA GAZTE BERTSOLARITZA EMANALDIA EGINGO DUTE ALGORTAN**

Urriaren 20an, barikua, adineko bertsolariak bilduko dituen IV. Bihotza Gazte emanaldia eskainiko dute Algortako The Piper's Irish Puben, 22:00etan. ALBeren eta Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimena da Bihotza Gazte ekitaldia. Sarrera dohainik izango da.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



**Luis Ledesma** > Irlandarren ikastetxeko saskibaloia entrenatzailea

“Talde indartsua lortu dugu eta esaterako ia kategoriaz igotzeko play off-a jokatu genuen”

**35 bat urte dira Luis Ledesma saskibaloia taldeak entrenatzen hasi zela. Betidanik egon da kirolari lotuta baina saskibaloian kasualitatez hasi zen, ikastetxe alemaniarrean lagun batek ordezkatzeko eskatu zionean. Ondoren emakumezkoen Kaixo taldea gidatu zuen, baita Caja Bilbaoko gazte txoen taldeak, ACBn. Gaur egun, Emakumezkoen Bigarren Ligan jokatu duen Irlandarren ikastetxeko taldea entrenatzen du.**



Argazkian, Luis Ledesma

—Joan den irailaren 13an Euskal Kopako finala jokatu zenuten Faduran eta 75-59 galdu.

—Emakumezkoen Lehen Ligako talde baten kontra jokatu genuen: Hondarribia-Irun. Talde oso indartsua da eta uste dut partida hartan gauzak gax ipini genizkiela. Hondarribia-Irunekoa jarraitu beharreko eredia da, baina nik hemengo jokalariekaz lortu gura dut beraiek erdie tsitakoa; izan ere, mundu osotik etorritako jokalariek dituzte: kroaziarrak, kanariarrak... Gure taldea osatzen duten 11 jokalariek, ordea, 8 bertokoak dira.

—Zuen lorpenak zeintzuk dira?

—Ligan parte hartu genuen lehenbiziko urtean kategoriaz igotzeko play off-a joka-

tu genuen. Baina horren ondorioz, kanpoko taldeek gure jokalariek asko fitxatu zituzten eta taldea berregin behar izan genuen. Gutxinaka-gutxinaka talde indartsua lortu dugu eta joan den urtean ere kategoriaz igotzeko partidak jokatu genituen. Aurten, ordea, kanpora joandako jokalariek batzuk bueltatu dira eta plantila iazkoa baino sendoagoa da.

—Zenbat aldiz entrenatzen duzue?

—Astean lau egun, bi ordu egun bako-

tzean. Eguaztenetan deskantsatzen dugu, hori da eta gure arazorik handiena. Batzuk ikasten ari dira eta beste batzuk lanean, beraz, 7:00etan altxatu behar baduzu zure betebeharrak betetzeko ez da gauza bera... Halere, saskibaloira soilik dedikatzen den jokalariek estatubatuar bat daukagu eta taldean jokatzeko gain, gazteak entrenatu ere egiten ditu.

**«Nesken artean etsipena handiagoa da, euren lanak hedapenik ez daukalako»**

—Ezberdina da emakumezkoak edo gizonezkoak entrenatzea?

—Bai! Lehenengo eta behin, jasotzen duten ordainengatik. Mutilak saskibaloira jolasteaz bizi daitezke eta komunikabideetan izugarrizko hedapena dauka eurek egiten dutena. Neskek, lorpen handiak izan arren, beste zerbaitetan egin behar dute behar eta, ondorioz, etsipena handiagoa da. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat oso modu serioan jarduten dutela.

—Dirua lortzea oso zaila izango da...

—Oso. Eskerrak Bizkaialdek zerbait laguntzen gaituzten babesleak, bazkideak, eta abar daukagu. m

## Abiadura-muga

Ibilgailuek **30 kilometro orduko** abiadura hartu ahal izango dute gehienez Leioako boulevardean



Oinezkoen segurtasuna bermatzea izango da neurriaren helburua

**Udaleko** ordezkariak jakinarazi dutenez, laster ezin izango gara gure ibilgailuek Leioako boulevardetik orduko 30 kilometro baino gehiagora joan. Trafiko ikerketa baten ondorioa da neurria eta boulevardean inguruetan egiten ari diren konponketak amaitu bezain arin jarriko dute martxan.

Burutuko dituzten hobekuntza lanetatik garrantzitsuenak Bidekurtzio plaza berria Euskaltegiagaz, Txomin Aretsi ikastetxeagaz eta Musika Eskolagaz lotuko duen oinezkoentzako pasabidea izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak baiezkoa eman dio dagoeneko zubia proiektuari eta 2007rako amaituta egotea espero dute. Hori eraikitzeko, Avanzadako errai batzuetako trafikoa eten behar-

ko dute gauean. Horrez gain, Artazan beste pasabide bat egiteko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Aldundiak.

Boulevardean eta alboko bideetan konponketa batzuk egin dituztela nabari da jadanik: zorua hobetzeko lanak egin, zebra bideak altxatu eta seinale horizontalak margoztu dituzte udan zehar. Etorrizunean, oinezkoen zein gidariek informazio gehiago eskaintzen dieten semaforo modernoak ere jarriko dituzte.

Gainera, Mendibiletik Bidekurtzioko aparkalekura doan bidearen urbanizazio lanak amaitzeaz gain, sistema bat ezarriko dute Avanzadatik sartzen diren ibilgailuek abiadura murriz dezaten. m

## ASIALDI GUNE BERRIAZ GOZATUKO DUTE LEIOAKO BIZILAGUNEK

Leioako zein Erandioko bizilagunak hartuko dituzte kontuan Euskal Herriko Unibertsitateko eraberritze lanek eta guztientzako aisialdi gune berria eraikiko dute campusaren ondoan. Hain zuzen ere, Avanzada eta Gurutze Gorriaren artean dagoen zatia hartuko du berdeguneak eta, guztira, 100.000 metro koadro edukiko ditu. Horrez gain, zuhaitz mota ezberdinak bilduko dituen lorategi botanikoa, bidegorriak eta ibiltzeko zirkuituak ipiniko dituzte. Datorren urtean hasiko dira lanak eta 2008ko otsailerako amaituta egotea espero dute. Parkea eraikitzeko bi milioi euro emango ditu Bizkaiko Foru Aldundiak.

## URRIAN HASIKO DIRA PINOSOLOKO ETXEAK ERAIKITZEN

Urriaren hasiko dira Pinosoloko babes ofizialeko 104 etxebizitzak eraikitzen. Horretarako, eraikinak joango diren tokiko lursaila hustu beharko dute; orain arte aparkaleku moduan erabili izan dute-eta. Zozketa, berri, joan den urriaren 2an burutu zuten, Sakonetako kiroldegian. Zozkatu diren etxebizitzetatik hamar bat Udalarenak dira, Lamiako eta Txopoeta auzoetako eraberritze lanak hasten direnean, bertan bizi den jendeari ostatu emateko.

## LEIOAZTARREK GOBELAKO KIROLDEGIA ERABILI AHAL IZANGO DUTE

Getxoztarren baldintza berberakaz, Gobelako kiroldegia erabili ahal izango dute aurrerantzean Pinuetako eta Ibaiondoko bizilagunek. Beraz, gura duenak alta eman beharko du Getxo Kirolaren auzo horietan erroldaturik dagoela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztuz. Neurria joan den irailaren 1etik dago indarrean.

www.euskaltegieleioa.com

masti klik

ordenagailua + zutorea = ikaskuntza pertsonalizatua ordenagailu + tutor = enbentza pertsonalizada

Mastibu Euskaltegia  
Iparagire Etorbidea, 75-48940  
Leioa (Bizkaia)  
Tel. 94 464 00 02  
Tel. eta Fax-a 94 480 25 80  
e-mail: mastibulego@telefonica.net



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## [erandio]

**Maison des Basques****100 bat erandioztarrek Pariseko Euskal Etxea bisitatu zuten joan den irailaren 30ean**

100 bat erandioztarrek Pariseko Euskal Etxea edo Maison des Basques bisitatu zuten irailaren 30ean, zapatua. Euskal Etxeak berak egindako gonbidapenari erantzunez, Erandioko Udalak 55 euroan txangoa antolatu zuen Frantziako hiriburura. Prezioaren barruan sarzzen zen bidaia, jatekoa eta hotela edo aterpetxea.

«**Erandio izena jarri zioten Maison des Basquesko areto bati**»

Herialde bietan bizi diren euskaldunen arteko adiskidetasuna indartzeaz gain, Parisen euskara sustatzea izan zen ekimenaren helburua. Horrez gain, eta bisita aprobetxatuz, "Erandio" izena jarri zioten egoitzaren areto bati. Bertara bisitan doazen euskal udalerrietako zutoihalak jarriko dituzte aurrerantzean gela horretan.

Autobusak joan den hilaren 29an, bariakua, irten ziren Santi Brouardeko geltokitik. Guztira, ibilgailu bi bete zituzten. Bidean hainbat geldidune egin zituzten jan eta atsedean hartzeko; besteak beste, Baiona, Poitiers eta Orleansen geratu ziren. Arratsaldean ailegatu ziren Parisera eta hiria euren kabuz apur bat ezagutzeko aukera izan zuten.

Hurrengo egunean, txangoa egin zuten Parisko leku turistiko adierazgarrienatara. Eguedian, berriz, bazkaria eduki zuten Euskal



Paris gauez

Etxeko ordezkariak eta, ondoren, Altzaga auzoko Uztarri dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. Amaitzeko, euskal musikaz gozatu ahal izan zuten Erandioko bidaiariak. Halere, ospakizunak ezin izan zuten luzerako irau, egun berean autobusa hartu behar izan zuten eta Euskal Herrira bueltatzeko.

**Maison des Basques**

Maison des Basques edo, hango euskaldunek deitzen duten bezala, Eskual Etxeak

Pariseko erdialdean dagoen Gabriel Peri etorbideko etxalde oso bat hartzen du eta gaur egun 35.000 bazkide ditu guztira.

Munduko hainbat lekutan dauden euskal etxeak bezala, hamaika dira Maison des Basquesek eskaintzen dituen ekintzak: euskara eskolak, artista euskaldunen zein atzerritarren erakusketak, urtero Iparraldean egiten den Herri Urratsen aldeko jaia, euskal jaiak, bazkariak, hitzaldiak, Euskararen Eguna, musika kontzertuak, euskal dantzak, etab. m

**Bordatxu**

Berbotsekoek **gazte-txokoko** ateak ireki zituzten berriz ere joan den **irailaren 15ean**



Gaztekoak Bordatxun olgetan

**Joan** den irailaren 15ean, Bordatxu gazte-txokoaren ikasturte berriari hasiera eman zioten Berbots Erandion Euskaraz elkarte-koek. Gazteek jai erraldoi bat antolatu zuten eta zuzeneko musika, txalaparta, malabreak, hanka-paluak, tailerrak, diskoteka eta luntxa gozatu zuten.

Aurten ere, euskarazko eskaintza kulturala eta ekitaldi ludikoak prestatu dituzte 12tik 16 urtera bitarteko gaztetxoentzat: txangoa Pagasari mendira, argazki txapelketa, "Sextxokoa" sexu ikastaroa, SMS lehiaketa, mosaiko tailerra, laburmetrai bat egiteko ikastaroa... Lokala bariku eta zapatuetan egongo da irekita, 17:00etatik 21:00etara. Urritik aurrera, gainera, domekutan ere irekiko dute.

Erandioko nerabeek euren artean euskara oso gutxi erabiltzen dutela ikusita, Bordatxu gazte-txokoa abian jartzea eta taldearen baliabideak proiektuaren esku uztea erabaki zuten Berbotseko arduradunek. Nerabezaroan, familiak protagonismoa galtzean, koadrila erreferente nagusi bilakatzen dela uste dute Berbotsekoek; hori dela-eta, faktore hori kontuan hartuta euren zuzendutako programa eratu dute, aisialdian ere euskaraz berba egiteko ohitura pizteko.

Hori guzti hori lortzeko, lokala beharrezkoa dela diote ekimenaren bultzatzaileek, beraz, San jeronimo kalean (Irailaren 23a plazaren inguruan) 100 bat metro koadroko egoitza alokatu dute. m

**TRAFIKOA ETA ETXEBI-ZITZA, BIZILAGUNEN KEZKA NAGUSIAK**

Trafikoa eta etxebizitza lortzeko zailtasunak dira erandioztarren kezka nagusiak, Udalak egindako inkestaren arabera. Hain zuzen ere, aparkaleku falta, immigrazioa eta segurtasun falta dira heritarren ustez arazorik larrienak eta 5etik 3k 71ko puntuazioa eman diote udalerrinari. Erandioko bizilagunak, ordea, pozik egertu dira sastarren batzea, kaleen garbitasuna, hezkuntza eskaintza eta kultura programazioagaz. Horrez gain, berdegune gehiago jartzea, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea eta gazteentzat zein nagusientzat ekintzak antolatzea beharrezkoa dela azpimarratu dute.

**BARRETERAPIAKO IKASTAROA ALTZAGAKO KIROLDEGIAN**

Azaroaren 8rako barreterapiako ikastaro laburra antolatu dute Altzagako kiroldegian. Iraupena 3 ordukoa izango da (18:00etatik 21:00etara) eta, gehienez, 20 pertsonak parte hartu ahal izango dute (ikastaroa egin ahal izateko gutxienez 9 pertsona behar dira). Ikastaroa euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dute eta prezioa 2,50 eurokoa izango da (errolatuta ez daudenentzako 3,50). Izena eman gura duenak urriaren 25era arte izango du.

**Informazio gehiago: 94 602 58 91.**

**LEHEN SOROSPENEN OINARRIZKO IKASTAROA ESKAINIKO DUTE**

Lehen sorospenen oinarriko ikastaroa eskainiko dute azaroaren 13tik 17ra arte, Bekoa ikastetxean. Ikastaroaren iraupena 20 ordukoa izango da eta ordutegia, berriz, 17:00etatik 21:00ak arte. Izena emateko epea urriaren 30era arte egongo da irekita eta 18 urte baino gehiago dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Prezioa 30 eurokoa da (35 eurokoa errolatuta ez daudenentzat) eta, gehienez, 18 pertsonentzako lekua dago.

san inazio

autoeskola  
1951n sortuaLCC - A1 - A - B - BTP  
baimenakTelletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

### III. "TXOPEL SARIAK" ANTOLATZEN DABIL UDALA

Sopelana goratzea helburu duten Txopel Sariak sariketa prestatzen dabil Udala. Udalerriaren izen ona sustatu eta ohiturak eusteko lan egin duten pertsona, talde eta erakundeak dira hautagaiak eta herritar guztiak izenda ditzakete. Horretarako, euren hautagaiaren izena Turismo Bulegoan hilaren 20a baino lehen eman beharko dute. Bost alorretan banatuko dituzte sariak: blogak; proiektuak, pertsonak, taldeak edo erakundeak eta enpresak, dendak edo lokalak. Garaikurrak Txopel Jaian banatuko dituzte azaroaren 9an.

### IKASLEAK SAREAN SARIKETA BLOGEN BIDEZ

Aurreko urtetan legez, Udalak Ikasleak Sarean sariketa antolatu du. 18 urtetik beherako ikasle sopoloztarrei edota Sopelako hezkuntza zentro batean ikasten dabiltzanei zuzenduta dago eta aurten lehenengoz blogak erabiliz egingo da. 1-5 bitarteko taldeetan blog bat sortu beharko dute ikasleek, astean behin gutxienez berrizatu beharko dutena, eta 4 hilabetez egon beharko du martxan. Izena emateko epea hilaren 20an amaituko da eta bloga jartzeko hurrengo bi denbora tartetatik bat aukeratu beharko dute partehartzaileek: urritik urtarilerara ala urtariletik maiatzera. Kirol edota ikas materialean xahutzeko 300 euro da saria.

Informazio gehiago: 94 406 55 05

### 7.000 ESKAERATIK GORA TURISMO BULEGOETAN

7.200 bisitari ingururi eskaini diete arreta udaletxean eta Larrabasterrako metro geltokian dauden Turismoko Informazio Bulegoak. Udaletik azaldu dutenez, iazko datuak alderatuz gero %20 egin du gora aurten bisitarien informazio eskaerak. Bizkaitik eta Euskal Herritik gerturatu direnen ostean frantziarrak izan dira eskaera gehien egin dituztenak eta horien ondoren kataluniarrak, madrildarrak, britaniarrak, italiarrak eta alemaniarrak.

**LAIKAK  
Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Euskal amerikanoak

"Nongoak diez, ba?", jubilatuta batek besteari. "Boisekoak!". "Hori non dau Nafarroan ala Iparralden?", ostabere lehengoak. "Ez ba, Ameriketara! Hara asko joan ziren". "Ba, bakie yantzan e!". Diotenez, Boisera (Idaho, AEB) joandako euskaldunek sortu zuten 1960an Oinkari taldea, eta haien ondorengoak Bizkaitik ibili dira euskal dantzen erakustaldiak polito eskaintzen. Taldeko 35 bat lagun etorri dira oraingoan eta ederto agurtu zituzten Oinkarikoek Sopelako Euskal Jaia jardunaldiak. Euskaraz ere bazekitela erakutsi zuten!



Eunate Agirre > bodyboardlaria

Sopelan jokatu den **Europako txapelketako** proba garrantzitsuan **lehena** lotu da



Etrokizunean bodyboard eskola bat zabaltzea da Eunatearen ametsa

**Europako** Bodyboard Zirkuituko proba garrantzitsua jokatu zen Sopelan irailean, Sopelana Movistar Pro; IBA Tour Mundialerako puntuagarria ere bazena. Urru- netik etorritako eta punta-puntako bodyboardlariak hartu zuen parte Arrietarako hondartzako proban eta Eunate Agirre "sopoloztarrak" lortu zuen garaipena; halaber, gizon- nezkoetan 3. eta 4. postuan gelditu ziren David Perez eta Antonio Ortiz.

Orain dela 3-4 urte bizi da Agirre Sopelan, "jaiotzez bilbotarra naiz baina udako oporrak aspalditik Sopelan pasatzen ditut, hemen surfatzen dut; nahiago dut sopoloztarrara naizela esatea", dio. 24 urteko bodyboardlariak gogoan du orain 12 urte inguru Marizuriko lagun taldeari jarraiki zelan hasi zen: "Egurrezko taula neukan eta lagunek kortxoakoa, nirea justu-justu mantentzen zen ur gainean eta eurenak pisu gutxiago zuenez urrutirago joaten ziren!". Oparitu zioten azkenean behar moduzko ohola, eta David Bustamante eta Sergio Sosaren laguntzaz txapelketetan parte hartzen hasi zen. Hala, apurka olatu handiagoak hartzen joan da,

onenen artean kokatzeraino.

Sopelako garaipena berarentzat berezia izan da: "3 dira denbora luzez gogoratuko ditudan probak eta hau da bat; uretatik irten eta ahizpa, familia, lagunak... denak zeuden han, itzela! Halere, presio handia jasan dut onena eman nahi nuelako, hondartzara ezagutzeara abantaila zen baina hori aprobetxatu beharra nuen! Australian Munduko txapelketako 3. postua lortu nuen, pozgarria ere baina desberdina, oraingoa benetan berezia izan da. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiot

**«Munduko txapelketako proban 3. izan nintzen, baina Sopelakoa berezia izan da»**

Sopelako Udalarri proba hau bultzatzeagatik". Orain aurrez aurre dauzka Europako (Portugal, azaroa) eta Munduko txapelketetako (Kanariar Uharteak) azken probak eta Hawaiiin erreportaje bat grabatzea. Gerora, ametsen artean, bodyboardetik bizitzen jarraitzea nahiko luke, "eskola bat-edo sortu, nik ikasitakoa irakasteko, neskato txikiak bodyboardak eman didan guztia helarazteko". m

DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa  
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhilton@euskalnet.net

**4 bide**  
pinturak



RIPOLIN  
BONDÉX  
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER  
DEVNA  
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

### LUDETEKAK ORDUTEGI ETA TALDE BERRIAK EDUKIKO DITU

Berangoko ludotekak adinaren arabera ordutegiak eta taldeak antolatu ditu aurtengo ikasturterako. Horrela, 16:00etatik 17:30era, 3 urtetik 6ra bitarteko umeen txanda izango da; ondoren, 17:30etik 19:00etara, 7 urtetik 9ra bitarteko haurren; eta azkenik, 19:00etatik 20:00etara, 10 urtetik 12ra bitartekoena. Bestalde, egun bakoitzean ekintza ezberdinak burutuko dituzte: astelehenean, psikomotrizitatea; martitzenean, tradizio jokuak; eguaztenean, munduko jolasak; eguenean, tailerrak; eta barikuan joku librea. Urriaren, esate baterako, Halloween jaia landuko dute tailerretan.

### NAFARROA OINEZ-ERA JOATEKO AUTOBUSA ANTOLATU DUTE

Urriaren 15ean izango den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du Berangoko Kultur Etxeko Gaztelekuak. Irteera 9:30ean izango da, Kultur Etxetik bertatik. Prezioa, berriz, 6 eurokoa izango da udalerrian erroldatutakoentzat eta 8 eurokoa erroldaturik ez daudenentzat. Joan gura duenak urriaren 11 arte dauka izena emateko.

Informazio gehiago:  
<http://spaces.msn.com/gaztelekuberango>



## Gaztelekuko denboraldi berria

Urriaren 6rako ongietorri festa prestatu dute



Iaz Gaztelekuan batzen ziren kideetako batzuk

**Gaztelekuari ere** ikasturte berriaren hasiera heldu zaio, eta denboraldi berriari zein Gaztelekuko kideei ongietorria emateko asmoz festa bat antolatu dute. Jaia hilaren 6rako deitu dute, arratsaldeko 6:00etan Gaztelekuan bertan, Santa Ana kultur etxean.

Aurton 3. urtea beteko duen udal zerbitzu bat da Gaztelekua, 13-17 urte bitarteko gazteei begirako programa. Hainbat ekintza eta ekitaldi prestatzen dituzte, erakustaldiak, lan-tegiak, irteerak, zine emanaldiak, lehiaketak, oporraldierako programa bereziak... eta aurtengo egitarauaren jarduera batzuk ere zehaztu dituzte, besteak beste: Kilometroakera joateko irteera (Oiartzun, hilak 1), Nafarroa Oinezera ere bai (Bera,

hilak 15), rol partidak (hilaren 20tik aurrera ostiralero), Halloween gaua (Berango Gaua programaren barruan, hilak 27)...

Iaz batez besteko 27-30 bat gaztek parte hartu zuten Gaztelekutik eskaini zituzten ekintzetan, baina jardueraz gainera Gaztelekuko txokoa bestelako eskaintzagaz ere goza daiteke, adibidez: bi ordenagailu (aurten agian hirugarren bat ipiniko dute), ping-pong mahaia, aldizkariak, mahai jokuak eta Play Station bat daude erabiltzeko prest. Horrez gainera, informazio gehiago gura duenak badu martxotik sarean horretarako helbide bat. m

Informazio gehiago: 94 668 11 79 edo  
[spaces.msn.com/gaztelekuberango](http://spaces.msn.com/gaztelekuberango)

## Eleizaldeko frontoi eta plaza berrientzat 560.275 euro bideratu ditu Udalak



Frontoi berria eraikita dagoenez, Lehendakari Agirre plazako pilotaleku zaharra eraitsi du Udalak

**Orain** hilabete bi eskas inauguratu zuten urduliztarrek, bi pelota partidagaz, frontoi berria. Lanak pasa den urteko uda aldean hasi ziren eta estali bako frontoiaren ondoan plaza bat ere egin dute, bien artean 2.770 metro koadro inguruko azalera hartzen dute. Eleizalde inguruetan Udalak eraiki duen frontoirako eta plaza berrirako inbertsioa 560.275 eurokoa izan da.

Plaza berez frontoia baino plano altuagoan dago, baina altuera desberdintasun hori pilotalekuari erantsi dizkioten hiru harmailakaz gainditu dute.

Frontoiko hormak hormigoi armatuzkoak dira, baita harmaila aurrefabrikatuak ere, eta asfaltourtu leunduko zolua dauka. Esan legez, estali bakoia da (herrian bada estalkidun beste bat), baina argi artifiziala ere badauka, 400 wateko 9 proiektore 3 zutabetan (9 metroko altuera) banatuta.

Frontoiaren goialdean lekutzen da plaza, Eleizalde kaletik bi sarrera dauzka eta men-

debaldeetik beste sarbide zabalagoa bat. Bertan ere 250 wateko argindarra daukaten hiru farola jarri dituzte. Gainera, ur edangarriko iturria ere edukiko du enparantzak. Oraindik ez dute erabaki, baina plaza berriari izena jarriko diotela azaldu dute Udaletik.

### «Lehendakari Agirre plazako frontoi zaharra bota dute dagoeneko»

Horrez gainera, udal arduradunek adierazi dutenez, frontoia eta plaza kokatzen diren inguruetan etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa daukate.

Amaitzeko, frontoi berria eraikita dagoenez, Lehendakari Agirre plazako pilotaleku zaharra bota du daborduko Udalak, herriko jaiak baino lehen eraitsi zuten; ondorioz, Nafarroa kalea zabalduko dute eta Eleizaldeko bideagaz lotu; horrek inguru horretatik dabilen trafikoari onura egitea espero dute arduradunek. m



## TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



## Ajuria taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



## OSABIDE HORTZ KLINIKA Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bigabari 27, behea eskua  
ALGORTA  
94 430 76 96



## cianoplan Reprografía

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Aviño Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak
- ermarkaketak



## ZUGARRAMURDIRA MENDI MARTXA URRIAREN 29AN

Plentziako Matrako mendi taldeak Zugarramurdi-Urdax-Zugarramurdi mendi martxa antolatu du urriaren 29rako (08:00). Irteera Ontziola plazatik izango da eta 18 euro (bazkideentzat 15) balio du. Prezioaren barruan daude autobus bidaia eta kobazulo-etatik bisita gidatua. Izen-ematea Goñi Portalean egin daiteke urriaren 17ra arte.

**Informazio gehiago: 667 60 23 57 edo matrakomendialdea@hotmail.com**

## ASIER MENTXAKA ARGAZKILARIAREN ERAKUSKETA PLENTZIAN

Asier Mentxaka argazkilariren erakusketa ibiltaria eskualdeko hainbat kultur etxetan egongo da gozagai eta Plentziako Goñi Portalean urriaren 2tik 13ra arte dago ikusgai. UK-ko argazkilariren begi zorrotzak eta begirada "ilunak" azkenengo 5 urteotan batutako irudien lagintzat har daiteke ia 20 argazkiz osatutako erakusketa.

## V. PERRETXIKO JARDUNALDIAK GORLIZEN

Iberren egingo dute urriaren 15ean (10:00-14:30) V. Perretxiko Jardunaldia. Azoka txikitxo bat antolatuko dute 30 bat postu ingurugaz perretxiko desberdinen erakusketa egiteko, milatik gora pintxo dastatzeko aukera egongo da eta lehiaketako sari banaketa ere egingo dute.

## LEMOIZ

### 15 urte eta gero, 6-8 urte bitartekoentzako eskolak



Haur Hezkuntzako (2-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte) dauzka orain Lemoizko eskolak

**Orain dela** 15 urte matrikulako ume kopurua- ren jaitsieraren ondorioz, Lemoizek Lehen Hezkuntzako (lehenengo zikloa) hezkuntza modulua galdu zuen. Orain 3 urte inguru 13 bat umek egin zuten matrikula Lemoizko eskolan Haur Hezkuntzan (2-6 urte) eta aurtengo ikas- turtean 30 inguru izan dira. Horregatik, azke- nengo bi urteotan Udala eta Gurasoen elkarte- a lanean ibili dira Eusko Jaurlaritzari eskatzen Lemoizen Lehen Hezkuntzako lehengo zikloa (6-8 urte) eskain dezan. Eta dagoeneko lortu dute herrian Lehengo Hezkuntza zikloa ema-

tea, ume nahiko daude antza matrikulatuta. Ondorioz, ziklo hori lekutzeko lanak egin behar izan dituzte Urizarren dagoen abade-etxe- ko beheko solairuan. Hala bertan jasoko dituzte 6- 8 urte bitarteko ume lemoiztarrek eskolak, horretarako atondu dituzten 50 metro koadro- ko bi gelatan. Lanon ordainketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren ardura izan da eta guztira 22.482 euro xahutu dituzte.

Beraz, 15 urte eta gero Lemoizko haurrek herrian bertan hasi ahal izango dute Lehen Hezkuntza. m

# Urriak 1-16

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Munduko emakumeak.** PTM-Mundubat. Algortako erakustaretoa. Urriaren 2tik 14ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30  
► **Marrasketa lineala.** Adolfo Martin. Erromoko erakustaretoan. Urriaren 2tik 9ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:00.  
► **Photo Album-Getxoko Jaiak 2006.** Mikel Martinez. Erromoko erakustaretoan. Urriaren 10etik 24ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:00.  
► **Roman Aguinacoren margolanak.** Algortako erakustaretoa. Urriaren 16tik 28ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30

### BERANGO

► **Kooperazio proiektua Chincheron, Peru.** Argazkiak. Izan Elkarte. Erakustaretoa. Urriaren 2tik 15era arte.  
► **Uda Gazteko eta Gazte Euskaltegiko argazki erakusketa.** Berangoetako Areto Nagusia. Urriak 6, 21 eta 28. 18:00 eta 19:00.

### PLENTZIA

► **UK-ko Asier Mentxakaren argazkiak.** Goñi Portal. Urriaren 2tik 14ra arte.

## ZINEMA

### ERANDIO

► **Orgullo y prejuicio.** Josu Murueta kultur etxea. Urriak 4, eguaztena. 19:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Las crónicas de Narnia: el león, la bruja y el armario.** Josu Murueta kultur etxea. Urriak11, eguaztena. 19:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Ice Age II. El deshielo.** Josu Murueta kultur etxea. Urriak 18, eguaztena. 19:00. Sarrera: 2 euro.  
► **El Código Da Vinci.**



► Kultur Leioaren bigarren urteurrena

### Javier Santurtunen erakusketa

Kultur Leioaren bigarren urteurrena dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Leioan hil honetarako, tartean, Javier Santurtun artistaren erakus- keta. Bilduma berezia da Santurtunena; izan ere, Kultur Leioako eraikinari modu estuan lotuta dago. Eraikinak lantzen dituen materialakaz zerikusia duela ikusi zuen artistak, beraz, erakutsiko dituen eskulturak zein margo- lanak aretoaren arkitekturagaz konektatzea erabaki du. Erakusketaren ezaugarri nagusia Kultur Leioako gardentasuna dela esan daiteke eta hori hain da Javier Santurtunentzat garrantzitsua, artelanak eraikinaren barru- ko aldetik zein kanpoko aldetik ikus daitezten antolatu dituela. Urriaren 31 arte egongo da bere lana ikusgai. Ez ezazu galdu!

• **Non:** Kultur Leioa • **Noiz:** urriaren 31 arte

Josu Murueta kultur etxea. Urriak 25, eguaztena. 19:00. Sarrera: 2 euro.

Urriak 6, barikua. 22:15.

### PLENTZIA

► **Match Point.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Urriak 6, barikua. 22:15.  
► **El rey de la granja.** Urmeentzako zinea. Ludoteka. Urriak 6, barikua. 17:45.  
► **La niñera mágica.** Urmeentzako zinea. Goñi Portal. Urriak 7, zapatua. 18:00.  
► **Match Point.** Helduentzako zinea. Goñi Portal.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Terapia de grupo.** Oroimenak taldea. Getxo Antzokia. Urriak 6, barikua. 19:30. Sarrera gonbidapenagaz.  
► **Amor desmadre.** Popotamos Teatro. Algortako Geltokia plaza. Urriak 12, eguena. 19:00.  
► **Arte (euskaraz).** Txalo taldea. Getxo Antzokia. Urriak 13,

barikua. 20:00. Sarrera: 7-9 euro.

► **Beti lagun.** Rosa Martinez. Andres Isasi Musika Eskola. Urriak 14, zapatua. 12:30. Sarrera: 3,50 euro.

► **Indioen lurraldea (euskaraz).** Pobxin eta Pabxin. Algortako Geltokia plaza. Urriak 14, zapatua. 13:00. Sarrera doan.

► **Buen viaje.** Pok taldea. Getxo Antzokia. Urriak 14, zapatua. 20:00. Sarrera: 7-9 euro.

► **Pinotxo.** Dar-dar taldea. Andres Isasi Musika Eskola. Urriak 15, domeka. 12:30ean gaztelaniaz eta 18:00etan euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

► **Txaribari (euskaraz).** Panta Rhei taldea. Algortako Geltokia plaza. Urriak 15, domeka. 13:00. Sarrera doan.

## BESTEAK

### GETXO

► **Kontzertua: Maialen Errotabehere.** Algortako The Piper's Irish Pub. Urriak 4, eguaztena. 20:00. Sarrera doan.

► **Kontzertua: Niko Etxart, Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu.** Algortako Satistegi plaza. Urriak 6, barikua. 20:00. Sarrera doan.

► **Batek mila ikuskizuna.** Getxo Antzokia. Urriak 8, domeka. 19:00. Sarrera 6 euro.

► **Burrunka taldea.** 20 perkusio eta 10 gaita jotzaile. Algortako Geltokia plaza. Urriak 7, zapatua. 12:00 eta 18:00.

### GORLIZ

► **Kontsumoaren inguruko hitzaldia.** Erakusgela. Urriak 3, martitzena. 18:00.

### PLENTZIA

► **Hitzaldia: Plentziako portua eta burdinolak.** Goñi Portal. Urriak 6, barikua. 19:30.

### BERANGO

► **Gaztelekuaren hasiera jai.** Gazteleku. Urriak 6, barikua. 18:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92


e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



## Abra akuarioa

Bizkaiko akuario handi bakarra da Getxokoa. Bertan, gure artean oraindino izenik ez daukaten berrehun bat kolore ezberdindu daitezkeela diote 125.000 litro ur daukan arrainontzi erraldoia bisitatu dutenek. Margoztutako hormairudiak balira bezala, urez betetako leiho bakoitzak habitat bat erakusten digu: hamarratzak, arrain tropikalak, Bizkaiko golkoko zaldiak... Itsasoko misterioak salgai jarri dituzte lehorrean! Irudiok bertan hartu genituen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Meñakotz

Willy Uribe

Gure eskualdean makina bat surfer egon arren, oso gutxi dira itsasoa harrotzen denean kostaldea zigortzen duten olatu erraldoiak irristatzera ausartzen direnak. Horietako bat argazkian azaltzen dena duzue; aspaldian gurean bizi den Tom Tye australiarra. Willy Uribek Meñakotzen ateratako argazki ikaragarriak ederto erakusten du Tomen ausardia.

MEÑAKOTZ, 2003

[berbetan]

Sei urte falta ziren 36ko Gerra hasteko, Marcos Bretos, *Markitos*, Algortako Portu Zaharreko etxe batean jaio zenean. 76 urte geroago, etxe horretako sukaldean hartu gaitu, gure grabagailuari bizitza bete oroitzen eskaintzeko. Aitagaz itsasora egindako lehen txangoak, arraunlari garaiak, Ameriketara joan zenekoa... *Markitos* Bretos Portu Zaharrari xarma emoten dion pertsonaia horietako bat da: ezin bata bestea barik ulertu. Bere edadeko guztiak bezala, auzoa arrantzaz bizi zen garaiaren lekuko zuzena izan da Bretos; berari ere nerabezaroan egokitu zitzaion, egokitu zitzaionez, aitari laguntzea. Baina orduko gazteek ere ez zuten bizimodu hura gogoko. Hobe zen egunean hamar orduz igeltsero jardutea, konparazio baterako. Lan bila, Ameriketara ere joan zen Bretos, eta hantxe ezagutu zuen gaur egun hain ezagun dugun paper barik bizitze hori. Azkenean, joan bezala itzuli zen, itsaso, arraunean segitzera besteak beste. Arrantzari uko eginagatik ere, itsasoa hurbil behar du-eta Bretosek. Portu Zaharrak bezala, azken batean.

# Markitos Bretos

## Memoriaren ziabogak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—76 urte daukazu, eta etxe honetan jaio zinen. Beti bizi izan zara hemen?

—Ia-ia. Sasoi batean hortxe goian bizi izan nintzen, etxe honetako ugazabak semearentzat gura izan zuelako hau. Baina ospa egin zuten, eta ni etorri nintzen atzera, urte bi geroago edo. Ordurako banengoen ezkontuta, denbora gitxi nerotan ezkontuta.

—Baina beti Portu Zaharrean, hori bai...

—Ia beti. Gerra Zibilean -Santanderren egon nintzen, errefuxiatu-, Kolonbian eta Venezuelan emon nuen beste urte batean, eta soldadutzan izan ezik.

—Zenbat urtegaz, soldadutza?

—Hemeretzigaz hasi eta hogeigaz amaitu. 22 hilabete irauten zuen, orduko denboran. Nik San Fernandon egin nuen, Kadizen, itsas armadako infanterian.

—Zelakoa zen Portu Zaharra zu umea zinenean?

—Desberdina, noski, bizitza gogorragoa zen gasrai hartan. Arrantzan joan behar izaten nuen...

—Aita arrantzalea zeneukan?

—Bai. Horretaz bizi ginen, eta beste lan txo batzutat. Aita, arrantzan ez eze, ontziak zaintzen eta garbitzen ere ibiltzen zen udan. Nik berriz, arrantzara laguntzen

**“Ni umea nintzenean arrantzaz bizi ginen, ez egoan ia beste ezer”**

nion, hamalau urtegeza-eta. Plentziaraino joaten ginen, goiz-goizetik, haizea aprobetxatuta. Eguraldia oraingoa baino osasungarriagoa zen. Baina goizeko lauretan altxa behar izaten genuen. Arriluzera joaten ginen, orain kirol-portua dagoen lekura; hantxe zeukan aitak ontzia. Oihalak ipintzen genizkion ontziari, eta Plentziara joaten ginen, Billano ingurura. Eta gero, ipar-ekialdeko haizeagaz, itzuli egiten

ginen, arratsaldeko 4 edo 5etarako.

—Eta berehala saltzen zenuten harrapatutako arraina?

—Bai. Gure amak bazeuzkan bere bezeroak, eta bezero onak gainera. Oso maite zuten denek. Etxeetan saltzen zen, ez hainbeste plazan. Eta horretaz bizi ginen, ez egoan ia beste ezer. Ama taberna batean

ra joaten zen plater garbitzera, eta janari-hondarrik egonez gero, ekarri egiten zigen.


—Asko zineten etxean?

—Lau neba-arreba, mutil bi eta neska bi. Etxe honetan jaioak, laurak.

—Eta zelako giroa egoan?

—Baegoazan tabernak, orain bezala, plazan. Eta gu asko ibiltzen ginen jolasean.

—Bazeneukaten jolasteko denborarik?





**Gurasoei lanean lagundu behar bazi-tzaien...**

—Umetan beti egoten da jolasteko denbora. Eta agureak tabernara joan eta ardo pitxerra eskatzen zuten, hortxe, plazan. Bizitza egoan kalean.

—**Egia esan, Portuko etxe gehienak sano txikerrak dira, eta hainbeste neba-arreba egonda familia bakoitzean, hobeto kalean, ezta?**

—Hasiera batean, etxe bakoitza familia batena zen, oso-osorik; gero, denboraz, neba-arreben artean banatuz-eta, etxe bakoitzean etxebizitza desberdinak egin ziren. Portu guztietan bezala.

—**Lehengora bueltatuz: zuk ez duzu arrantzan larregi jardun...**

—Ez, igeltsero-aprendiz sartu nintzen 1944an, hamalau urte neuzkala. Praka motzak nerabiltzan, artean. Garai hartan Leioako auzune batzuk eraikitzen genbiltzan, eta ni, harainoko bidean -oinez beti-Neguriko atari batean sartu, praka motzak erantzi eta luzeak janzen nituen.

—**Arrantzarik ez beraz...**

—Lanbide modura ez. Aitari laguntzen-edo, eta geroago, ezkondu ostean, zale modura. Baina ogibidez igeltseroa izan naiz erretiroa hartu arte.

—**Orduan, zure garaian, gazteak hasiak zineten arrantzari uko egiten...**

—Oso gogorra zen! Gure aitak joan egiten ziren, ez zeukatelako besterik, baina guk... Nik lanbide bat ikasi gura nuen, eta hala-xe egin nuen. Itsasotik ozta-ozta ateratzen zen lau txakur txiki, jateko. Edozelan, gaur egun ez dago arrainik itsasoan, ez lehen beste.

—**Berba egin dezagun arraunaz, hori izan da-eta zure zaletasunik handiena...**

—Halaxe da. Raspasegaz hasi nintzen, Areetan, hamasei urte neuzkala. Artean, ez zegoen Algortan trainerurik. Egona zen gure aitaren garaian, baina ni arraunean hasi nintzen desagertuta zegoen. Butano-leherketa izan zenean egin zen barriro taldea.

—**Parka ez-jakintasuna, baina gazteegia**

**naiz ni: butano-leherketa?!**

—Bai, 1966an. Tren batzuk ekarri zituzten Santurtzira, horra [etxetik atera gara, atarira, eta Bretosek atzamarrez adieraziko digu hemendik aurrera non gertatu zen butanoarekiko ezbeharrak].Halako batean, denak lehertu ziren, bata bestearen ondortik. Bonba atomiko bat lehertu bailitzan izan zen.

—**Hemendik ez zen ba txarto ikusiko!**

—Ez ba, alajaina! Ni orduan ez nintzen

## “Oraingo estropadak askoz hobekak dira lehengoak baino”

hemen bizi, goratxuago baizik, beste etxe horretan. Eta beldur izan nintzen honaino ailegatuko ete zen.

—**Baina oso urrun dago!**

—Bertatik bertara balego bezala ikusten zen. Gaua zen, urtarrileko gau ilun horietakoa. Santurtziko asko honaino etorri ziren, ikararen ikaraz, pijamagaz ondino. Eta mordo bat Serantesera igo zen ihesi..

—**Arraunaz genbiltzan berbetan...**

—Bai. Gaur egun Algortan dagoen taldea 1966an sortu zen, eta parte hartu zuen lehengo estropada, hain justu, butano-leherketak kaltetutakoen alde dirua batzeko egin zen. Ni, Algortako taldea egin orduko, bertara joan nintzen, Raspas utzita.

—**Eta zer adinera arte ibili zara arraunean?**

## “Ameriketara engainatuta joan ginen lanera; han ez zebiltzan hobeto!”

—Arraunlari, 41 urte eduki arte. Gero, 1985era arte patroiz. Sasoi batean, Kaikun eta Iberian ere ibili nintzen, biak ere Sestaon. Kaikura Algortako bi joan ginen, Seco eta biok -Seco Seco Seco zeuzkan hark lehenengo hiru abizenak-; jende faltan egozela-eta, inguruko talde guztiei eskatu zieten laguntza, eta hara joan ginen bakoitzeko pare bat, euren taldea osatzera.

—**Oker ez banabil, Kaikun egonda Kon-**

**txara arraunean joateko aukera ere eduki zenuen...**

—Aukera bai, baina ez nintzen joan. Izan ere, ezetz esan genien antolatzaileei. Garai hartan, nork bere trainerua zeukan entrenatzeko, gaur bezala, baina lehiatzekoak aldundiek ematen zituzten. Guri bezperan ekarri ziguten bat, negargarria. Otzara bat emoten zuen! Gordeta eduki zuten luzarotan, eta hondatu egin zen: puztu, arrakalak egin.. Han ez zegoen arraunean egiterik.

Beraz, hura izan zen Kontxara joateko eduki nuen aukera, baina...

—**Gustatzen zaizkizu estropadak orain, ikusle modura?**

—Bai, noski. Oraingoak askoz hobekak dira lehengoak baino, arraunlariak askoz hobeto prestatuta dagoz.

—**Baina zer begitantzen zaizu azken boladan jazo den guztia, Kontxako Banderan-eta? Dopinga eta abar...**

—Hara, hori hala dago antolatuta, futbola eta gainerako gauza guztiak bezala. Medikuek daukate errua, edo auskalo nork...

—**Esan dugunez, 60ko hamarkadan urtebete emon zenuen Kolonbian eta Venezuelan...**

—Lanera joan ginen, baina erdi engainatuta. Nik zera esaten nien nigaz joan zirenei: hemen ez daukagu zer egirik guk! Eta halaxe zen: bertakoei kentzen genien beharra! Jakina, mehatxatu egiten gintuzten, eta ezkutututa eta guzti ibili ginen. Kolonbian izan zen hori. Gero, baimena lortu genuen Marakaibora joateko lan egitera, Venezuelara. Kolonbian jateko ere ez genuen irabazten! Eta akabatu gura gin-

tuzten, han ez dabilta tontakerietan, labana sartu eta kitto. Akabuan, Marakaibora joateko agiria kontsulak emon zigun, koñak truke. Koñaka edo andreak eskatzen zituen hark.

—**Eta zelan Marakaibon?**

—Hobeto edo. Batzuk Karakasera joan ziren, baina ni bertan lotu nintzen, igeltsero. 65-66 urteak ziren. Baina, beharrean nengoela, ostu egin zidaten gako batean eskegita utzitako arropa, agiri eta guzti. Paper barik geratu nintzen, ez nortasun-agiriirik, ez lan-baimenik... Gero, Karakasera joatea suertatu zitzaidan neuri ere, eta kamioi batean joan nintzen, poliziaren kontrola zegoen bakoitzean ezkututuz, agiriirik ez neukala eta. Karakasen, azkenean, konpondu egin nituen paperak. Portuga-


leteko bat egon zen kontsul. Nire lagunak harengana joan ziren eguenean ni etxean lotu nintzen, oso nekatuta nengoelako hainbeste lan egiteagatik, eta hara non kontsulak lagunak salatu eta poliziak atxilotu egin zituen. Pertsona txarra, hura.

—**Zer jazo zen akabuan?**

—Han lotu nintzen sasoi batez, baina paper barik beharrean, oraingo etorkinak hemen bezala. Azkenean, 90 bolibar kobratu zizkidaten zorioneko paperak egitearren. Gitxika-gitxika ordaindu nituen; Artetxe izeneko zaruaztar batek utzi zidan dirua, eta nik hari itzuli nion, apurka-apurka. Bestela ere, txarto, beti herri-minagaz, amagaz akordatzeko asko... Baina tira, akabuan etorri egin nintzen Algortara atzera, han urtebete egin eta gero.

Martxoaren 12an abiatu nintzen hemen-dik hara, eta hurrengo urteko martxoaren 12an bueltatu nintzen hona. Eta bietan, gainera, italiarra zen ontzia. Hona ailegatu eta gitxira izan zen butano-leherketa. —**Ameriketara joan zineten beraz.. Hain txarto egon ziren gauzak hemen, ala?**


—Guzurrakaz eroaten gintuzten, han baegoala beharra-eta... Halakoak esanez, baina han ez egoan bat ere. Ez zebiltzan hemen baino hobeto. Eta hemen txarto, bai, ondino gerraren ondorioak igartzen ziren. Diru gitxi irabazten zen. Ni etorri eta orduan hasi ziren gauzak hobera egiten. Baina jende asko joan zen Ameriketara. Lehenengo eta behin, gerratik ihesi asko: batzuk han egoazan ni joan nintzenean, eta han lotu ziren betiko. m




# Egonaldiak euskaraz zure lagunekin!

1994 eta 1999 bitartean jaiotako ume euskaldunentzat

NOIZ	NORA	PREZIOA	MATRIKULA
Urriaren 11tik 15era <i>Del 11 al 15 de octubre</i>	Pasai Donibane	64 €	Urriaren 2tik 5era <i>Del 2 al 5 de octubre</i>
Abenduaren 5etik 10era <i>Del 5 al 10 de diciembre</i>	Beizama	80 €	Azaroaren 27tik 30era <i>Del 27 al 30 de noviembre</i>



**Informazioa**  
**EUSKARA ZERBITZUA**  
**Jose Ramon Aketxe plaza 11 (Kultur Leioa)**  
**Tel: 94 607 25 76**




# Antzinako postalak

Nork ez dio, berehalako maitasun atake batean, amari oporlekutik postal bat igorri? Leku horien edertasuna erakusteko saiakera izaten dira postalak. Getxo oporleku garrantzitsua zen joan den mendearen hasieran. Garai hartako Getxo nolakoa zen erakusten zuten txartel edo postalak dituzue orrialdeotan.

Irudiak

**Getxoko Udal Liburutegia**



ALGORTA, SAN NIKOLAS ELIZA (1900)



ALGORTA, CASA BARCO (1900)



71. ALGORTA.-Avenida Basagoiti.

ALGORTA, BASAGOITI (1935)



BILBAO — El puerto de Algorta

ALGORTA, PORTU ZAHARRA (XX. MENDEAREN HASIERA)



Clisé de la casa «Lux», de Bilbao  
Pueblo de las Arenas y pueblo de Algorta

ALGORTA, EREAGA (XX. MENDEAREN HASIERA)



ALGORTA — NÚM. 5

PLAYA Y MUELLE

*Al dirigir la vista a esa  
playa, evóla un suspiro por  
no poder combatir el calor  
sofocante que aquí hace  
suyo aff. <sup>nuv</sup> Julián*




ALGORTA, PORTU ZAHARRA (1909)



AREETA, HONDARTIZA



AREETA, KALE NAGUSIA (1930)



AREETA, TXABARRI JAUREGIA (1909)




AREETA, BIZKAIKO ZUBIA



AREETA, MARITMOA (1908)



AREETA, ZUGATZARTE (1910)



AFRANTZALEAK AREETAKO KAIAN (XX. MENDEAREN HASIERA)



AREETA, ZUGATZARTE (1930)

## Dagoeneko estreinatuta


Donostiako **Zinemaldian** aurkeztu berri dute **Kutsidazu bidea Ixabel** euskarazko filma

**Orain dela** egun batzuk, irailaren 28an, estreinatu zuten *Kutsidazu bidea Ixabel* film euskalduna eta daborduko Euskal Herriko zinemetan ikus daiteke.

Lehenengoz papererako bidea hartu zuen Josean Sagastizabalek 1976ko udan bizitako istorioak (liburua 1978ko udan

«**Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek zuzendu dute filma**»

kokatzen bada ere), “errealitate asko” daukan fikzioa delako 1994an Alberdaniak argitaratu zuen *Kutsidazu bidea Ixabel* liburua (64.000 ale saldu dira). Osteen, liburuan oinarritutako euskarazko ariketak batzen zituen CDa plazaratu zuten. Gero, Angel Alkainen eta Gorringo taldearen ekimenez oholta gainera egin zuen salto, lehe-



Argazkian, Mikel Losada aktorea

nengo aldiz 2003ko martxoan (urte eta erdian 180 emanaldi egin zituzten). Ondoren, antzerki lana DVD formatuan kaleratu zuten. Azkenik, Orio produkzioak,

Tentazioak eta Rec ekoiztetxeek pantaila handira erotea erabaki zuten, eta pasa den urteko uztailean 18an hasi ziren filmatzen. Nagore Aranburuk, Karlos Zabalak eta Sagastizabalek berak egokitu dute gidoia eta Fernando Bernuesek eta Mireia Gabilondok zuzendu dute lana. Irudi eta eszena gehienak Gaztelun eta Idarreta baserrian (Zizurkil) grabatu dituzte eta Ainere Tolosa (Ixabel) eta Mikel Losada (Juan Martin) dira pertsonaia nagusiak antzeztu dituzten aktoreak.

Euskaldun andanak daki Juan Martin euskaldun berriak “benetako” euskara ikas-terko asmotan baserri giroan emandako egonaldiaren eta bertan bizitako “komerrien eta amodioen” berri, alabaina, oraindik horiek guztiak ezagutzen ez dituenak eta filmak dakartzan berrikuntzak ikusi gura dituenak zinemara jotzea baino ez dauka. m

## Kutxus Areatxu fanfarrea

Laster beteko dituzte **zilarrezko ezteiak** eta **ospatzeko festa** bat antolatzeke asmoa dute



Informazio gehiago: [areatxu.blogspot.com](http://areatxu.blogspot.com)

**Arrigunaga** hondartzako ezker aldeak Areatxu izena ei dauka, eta bertan ziharduen futbol talde bat bazegoen, eta lagunarte bat ere bai... Areatxu izenduna. Eta lagunarteko azken belaualdiak txoko bat egin zuen, eta han landatu zen Areatxu fanfarrearen hazia. Halere, txokoak Areatxu izena zuenez elkarten erregistroan ez zieten fanfarreari izen hori bera ipintzen utzi eta zendutako Kutxu (Julio Jaen) taldekidearen omenez Kutxus Areatxu izena ipini zioten fanfarreari 1982an. Hala bada, oraingo ikasturtean betetzen du bandak 25 urte eta gaur egun 14-15 bat musikaririk osatzen dute. Josu Capetillo fanfarreakideak azaldu duenez “*hasienatik antiprofesionalak-edo izan gara, herriko jaietara joaten gara ahal bada kobru-*

*tu barik...*”. Portu Zaharrari oso lotuta dagoen fanfarria da eta bertako jaietan ez dira inoiz falta izan, “*Neguko San Nikolas eguna berreskuratzen ahalegindu gara, abenduaren 5-6; gainera Algortako jaietan, Errege kabalgatan, Ibilaldian, Kilometroak, sanferminetan, Korrika egunean, errugbi eta Punta Galeako ekitaldietan, San Nikolas Ikastolako jandueretan... jotzen dugu*”, dio Capetillok. Urteurrena ospatzeko ziuurtenik azaroaren 4an jaitxo bat antolatzeke asmoa daukate, “*3 fanfarrea gonbidatu ditugu, kalejira egin, San Nikolas plazan elkarrekin jo, eta gero ahal bada bazkari bat; baina baliabide ekonomiko bila gabiltza*”, aurreratu du Capetillok. Amaitzeko, Areatxun musikari gazteek atek zabalik dituzte. m

## diskoa >

Fitoren lan berria



*Por la boca vive el pez* disko berria aurkeztu du Adolfo Cabrales, Fitok. Bi urte eman ditu bilbotarrak lan berririk argitaratu barik eta oraingoan Fitipaldis

taldekide berriak ere izan ditu lagun. 13 abestiz osatutako diskoa, Platero y Tu taldea utzi eta “bakarkako” bideari ekin zionetik kaleratzen duen bosgarren lana da. Katalunia aldean grabatu dute eta nahasketa-lanak AEBetan egin dituzte. Bestalde, azkenengo lan hori merkaturatzen zen egun berean platinozko 3 disko (100.000 ale baino gehigo saltzeagatik) jaso zituen *A puerta cerrada*, *Los sueños locos* eta *Vivo... para contarlo* diskoengatik eta, beste bat, platino bikoitza (200.000 ale) *Lo mas lejos a tu lado* lanagatik. Eta plazaratu eta 2 atera *Por la boca vive el pez* diskoak ere lortu du platinozkoa. Abenduaren 22an emango du kontzertua BECen.

## elkartasuna >

18/98+koen alde

18/98+ Lantaldeak sumario horretan auziperatuta daudenei elkartasuna adierazteko beste ekimen bat antolatu du, jaialdi handi bat prestatu dute azaroaren 11n Barakaldoko BECen. “Auzipetuek pairatzen duten zama ekonomiko astuna zertxobait arintzeko” baliatu gura dute ekitaldia, eta besteak beste Fermin Muguruza (Euskal Herria Jamaika Clash lan berria aurkeztuko du), Sorkun, Palestinako rap talde bat eta Kataluniako taldeek eskainiko dute kontzertua. Sarrerak 18,98 euro balio du.

## diskoak

**I got you**  
Jungle Brothers  
Rambling Records



Rap estiloko musika sortu zenetik duintasun osoz bizirik irausten duen bikotea da Jungle Brothers. 80. hamarkadan hasi ziren emanaldiak eskaintzen eta musikalki garai berrietara egokitzeko ahalmena eduki dute, originaltasuna galdu barik. Oraingoan, rap bizia eskaintzen digute, funk eta elektro doinuak nahastuta. Disko erakargarria kaleratu dute, indartsua eta dantzagarria.

**Into the plateau**  
Delorean  
Bore



Disko honetan Deloreango musikariek euren soinu propioa aurkitu dutela ematen du. The metropolitan death aurreko bildumaren ildo jarraituz, house musika eskaintzen digute azkenengo lan honetan. Punka elektronikara eraman gura izan dute, sinte analogikoak eta ahots berezi bat erabiliz. Taldeak elektronikara egindako behin betiko jautzia ematen du *Into the plateau* diskoak.

**1. maketa, 1983**  
Eskorbuto  
Elkar



1983an lehenbiziko maketa atera zutenean, Madrilen atxilotu zituzten Espainiaren aurkako mezuak zabaltzea egotzita. Gertarera horrek taldearen etorkizuneko ibilbidea bideratuko zuen. Maketa jazoeraren ondoren grabatu zuten Rufus taldearen entsegu lokalean. Orain CDan kaleratu dute eta laster biniolan aterako dute. ETA abstentzia azken disko honetan entzuteko aukera izango dugu.

# Olgetan

## euskaraz

### zer da Olgetan?

haurrek egunero ordubete jolasean euskaraz ematea. Euskara erabiliz ezagutza handituz hitz egiteko motibazioa ere landu egiten da.

Hori lortzeko jolasak, tailerrak eta eskulanak egiten dira, txangoak, asteburu pasa eta antzeko ekintza osagarriak ahaztu barik.

### nondik norakoak

- 5 urtetik (2001ean jaiok) 11 urte bitarteko umeentzat.
- Asteleheneretik ostiralera.
- Arratsaldeko 5etatik 6etara eta 6etatik 7etara.
- Jarduerak urriaren 9an hasiko dira.

### izenemateak eta prezioa

- Izenemateak urriaren 2tik 6ra.
- Non egin matrikula: Udal Euskaltegian, Iparragirre Etd. 78
- Matrikulatzeko ordutegia: 10etatik 12etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- Matrikularen prezioa: 90 euro urte osoa.
- Argibidearen telefonoa: 94 607 25 76

etorri  
eta  
ikusii!!

**MORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza  
**urriak 9**

Erromoko kultur etxea  
**urriak 19**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Guizzardiren abenturak

Celatiren *Erretolika irrigarriak* trilogiako lehenbiziko liburua kaleratu du **Igelak**

**Ez zuen** ordena errespetatu eta Gianni Celatiren *Erretolika irrigarriak* trilogiako bigarren eta hirugarren liburuak (*Denak hasperenka* eta *Paradisuko almanaka*) argitaratu zituen lehenengo eta behin Igel argitaletxeak. Orain, ordea, trilogiarako idatzi zuen *Guizzardiren abenturak* lehenbiziko kontakizunari heldu zaio kalera irteteko ordua.

Celatik dioenez, *Erretolika irrigarriak*-en bidez Pinotxoren istorioa kontatu gura izan du hiru era ezberdinetan. Guizzardi, esate baterako, batetik bestera dabilen umezurtza da. Pertsonaiak darabilen lexiakoak eta sintaxiak, berriz, zoroen idazmoldeari buruz egileak berak egindako ikerke-

«**Guizzardi umezurtzak eskizofreniko baten diskurtsoa darabil**»

tan dute jatorria. Guizzardik eskizofreniko baten diskurtsoa erabiltzen du, baina bizitza errealean egoera hori gordina bada ere, irakurlearengan barrea eragitea lortzen du idazle italiarrak.

Gianni Celati 1937. urtean jaio zen Sondrion (Italia) eta *Comiche* (1971) eleberriaz estreinatu zen. Idazleaz gain, itzultzailea ere bada Celati eta, besteak bes-




Argazkian, Gianni Celati idazlea

te, Roland Barthesen, Jonathan Swiften, Jack Londonen, Mark Twainen eta Joseph Conraden lanak itzuli ditu.

### Igela argitaletxea

1989an, Iruñean sortu zuten Igela argitaletxea Xabier Olarrak, Joseba Urteagak eta Jose Manuel Gonzalezek. Literatura unibertsaleko lanik esanguratsuenetako batzuk hautatu eta horien euskarazko itzulpenak argitaratzen ditu Igelak. Orain arte, 50 bat titulu kaleratu ditu bilduma ezberdinetan: sail Beltza, Enigma bilduma, Literatura saila, Mintaka eta Gabonetako Ipuinak. m

liburuak



**Atondu**  
Ane Albisu  
Elkar

Euskal jantzi tradizionalaren ikuspedia eskaintzen digu Albisuk atera berri duen liburuan. Jantziari berari baino, jantzteari, prestatzeari edo atontzeari garrantzia eman gura izan dio egileak: zergatik, zer, nola, noiz eta zertarako jantzen ditugun.



**Izua**  
Lydia Flem  
Alberdania

Izualdi bat deskribatzen saiatzen da egilea bere azken lan honetan, hura pairatzen ez dutenei horren berri emateko. Horretarako, deskribapen biziak erabiltzen ditu Flemek, kontakizuna errealitate ahali eta hurbilen kokatuz.

[kirola]

Jolaseta > hockey

**Ohorezko mailara** itzuli dira aurten belar-hockeyko **senior taldeak**



Goikoetxea: «Ohorezko mailan Bizkaiko talde bakarra gara, eta Realak izango da euskal aurkari bakarra»

**Jolasetako** belar-hockeyko senior mailako taldeek, bai emakumezkoenak, bai gizonezkoenak, berriro ere, Ohorezko mailan jardungo dute aurtengo denboraldian. Jolaseta hockey taldea modu ofizialean 1933an sortu zen, eta emakumezko taldea urte batzuk beranduago. Patin-hockey alorrean taldeak badituzte ere, gaurkoan belar-hockeyko emakumezkoen taldean ipini dugu begirada.

Emakumezkoetan kimu, haur, kadete, gazte eta senior mailetan dauzka taldeak Jolasetak (gizonezkoetan benjaminetan ere); eta esan legez, nagusienek Ohorezko mailara itzultzea lortu dute. Izan ere, 2000-2001 denboraldian maila horretan lehiatu ziren, baita 2002-2003koan ere, horregatik 2000tik seniorren entrenatzaile den Erdoitza Goikoitxeak adierazi duenez aurtengo helburua da «*maila honetan mantendu ahal izateko taldea osatzea; ez izatea mailaz gora eta behera dabilen talde yo-yo bat, mailari eroso eta luze eusteko taldea prestatzea; momentuz play off-etan sartzea baino, taula erdian lasai ibiltzea*». Taldea 19 jokalariz osatzen da, argentinar bat, kubatar bat eta aurten Laudiotik etorritako beste hiru kenduta gai-

nontzeko jokariak getxoztarrak dira.

Gaur egun hockeyan asko arduratzen duen auzia edo arazoa, Goikoetxearen esanetan, hurrengoa da: «*Amateur filosofia desagertu egin dela, jolasteagatik ordaintzen ez dugun talde gutxienetakoa gara eta horregatik gatzagoa da goian mantentzea, 10 profesional-edo dauzkaten taldeen kontra zaudelako lehian; maila gorenean egon zaitezke, baina ez baduzu fitzaketarik egiten, ez bazara euren "jokuan" sartzen, lan handiagoga egin behar duzu, euek maila hori ordaintzearen truke lortzen dutenean*».

«**Jolasteagatik ordaintzen ez dugun talde gutxienetakoa gara, horregatik gatzagoa da goian mantentzea**»

Bestalde, Faturako zelaiaren erabileraren gainean ere jakingura azaldu du: «*Ja zelaiari erabilera egokia ematen dioten, hockeyarentzako baliabideak ipintzen hasten diren... batez ere Bizkaian txapelketaren bat enatu ahal izateko, talde gehiago sortzen badira jokalarien mailak ere gora egingo du... Espero dut Faturan, eta horrenbestez Getxon, hockeya bultzatzea*». m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA KIROL MODA**



**350** M<sup>2</sup>


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

**Lacorfris s.l.**



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETEKO GARANTIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU-  
& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Blanca Oraa** > hondartza-margolaria

“Hemen, jendeak ez du abstrakziorik nahi, oihal gaineko olio-pintura baizik; horixe ematen diet”



Blanca bere lantegian

Blanca Oraaren (Bilbo, 1946) web orrian sartuta berehala ohartu ginen gauza askoz berba egin daitekeela Getxon bizi den artista honegaz. Eta halaxe izan da, baina, zoritxarrez, esandako guztiak papereratzeko leku nahikorik ez daukagu. Horregatik, Oraak oraintxe darabilenaz baino ez dugu jardungo: hondartzak. Are gehiago, hondartza-margolari modura aurkeztu dezagula eskatu digu. Guk, txintxo-txintxo, halaxe egin dugu.

—Hondartzetako koadroz beteta daukazu etxea. Aro hori gaindituta zeneukala uste genuen...

—Berririo heldu diot. Hainbat urtez abstraktoa margotzen ibili naiz, baina ez dut erantzunik jaso. Ez nintzen zoriontsua, eta neure buruari galdetu nion ea zertarako pintatzen nuen, neuretzat edo norentzat. Ze abstraktoak margotzen nabilela zoriontsua izan nintzen, baina gero, konturatu egin nintzen erantzun bat behar dudala.

—Zeri esaten diozu “erantzuna”, ordea?

—Jendeak zelanbaiteko erreakzioa edukitze-ari. Ahal bada, gustuko eduki dezatela nik egiten dudana; eta bestela, begira diezaiotela, zeozer esan dezatela behintzat. Gogoratu egin nintzen hondartza margotzen ibili nintzen aurreko aldian oso arrakasta handia lortu nuela, eta berririo hori egitea erabaki nuen.

—Lehen bezala, orain ere Gipuzkoa ekialdeko hondartzetara jo duzu batik bat...

—Bai, Ondarreta, Zarautz... Brighton (Ingalaterra), eta hango marradun aulkiak ere bai. Berririo hasi naizenetik, oso harrera ona

eduki dut. Saltzen nabil, galeriek deitu egiten didate... Badut erantzuna, eta horrek ase egiten nau. Marra margotzen eman nahi ditut geratzen zaizkidan urteak.

—Horixe esan behar genizun: hondartzak baino, marrak margotzen dituzu. Inoiz esan duzu, gainera, marra margotzeak adikzioa sortzen duela. Zu, behinik behin, orain dela 20 urte baino gehiago hasi zinen, Athleticen elastikokoak koadroratuz...

—Haiek ere ez zuten erantzunik eragin. Futbolzaleei futbola gustatzen zaie, baina futbola arte bihurtzen denean ez dira ulertzeko gai.

### «Hondartzak margotzen ditudanetik badut erantzuna, eta horrek ase egiten nau»

—Bide batez: zergatik Zarautzeraino joan, Getxon bost hondartza edukita?

—Getxokoek ez daukatelako aulkirik, ez aldagelarik, ez marradun ezer.

—Zure hondartzetan ez dago jenderik...

—Jendea ikuslea bera izatea nahi nuke. Koadroari begira dagoena koadro barruan sentitzea, alegia.

—Hamahiru urte zeneukala hasi zinen margotzen, eta denetik egin duzu: argazkiak moldatu, logoak, kutxatxoak... Horietako asko arrakasta bakoak, zure berbei jaramon eginda...

—Hala da. Azkenean, inguru honetako jendeak olio-pintura nahi du. Olioia oihal gainean, eta ikusten ari dena ezagutu, abstraktorik ez. Bada, horixe ematen diet.

—Eta arrakasta zer da, azken batean?

—Hara, gauza bat da erantzuna jasotzea, errespetatzea, begira dezatela, kritika egin diezaiotela... Ni, horrekin, oso gustura egoten naiz. Eta arrakasta? Arrakasta guztia saltzea da! (Barre). m

—Telebisiño? Non?

**Esakere** > “Gosek hillik egon”

Irudia: Gorka Vazquez

Gure aitite-amamak sarri esaten dauden esakera da hau euren gazte sasoiaren genero berba egikeran: ez ziren harik denpora onak ixen, ez yanari aldetik ez biziteko behar direzen beste gauza batzuterako, askatasune kasu baterako. Gaur egun gehienok zoriona deku ez dogule goserik pasaten gaur egun, yanari aldetik sikeran, baia gauzak behar dan lez esateko, badeku, honek lerrotzuk idatziten gabizen egunen, nogaz akorda askatasun gose aitetuten dogunen: ahalmena edo podera daukenak yokatu daiela artez, eta ase daiela lehenbaxelen apurke-apurke gitxituten doan mutil horren eta bera lez askatasun beharraz dauzen danan gose, lar belu ixen baiño lehen.

**Gureberbakere**83Testua: **Xabi Bilbao****ZELAN ESAN****Berbetari lagunduteko (1)**

Gaur alkarrizketa erdiko berba eta esakeratxu batzuk ikusiko doguz, berbeta erraztuteko eta lagunduteko erabilten direzenak.

**Entzule adi para daiten / adi segidu daien**

Bádakizu (bákixu)?

Yakin dozu hau?

Bákixu ze esan gure doten?

Ulertu dozu / dostezu?

Atrápa dozu? Aitu dozu?

Ta kóntuz, aitu zer esan behar dotsuten...

Ta hára, hau da kontu...

**Erantzunek**

Bai, argi dau / Ondo argi dau.

Bai, áurrera.

**Adibidek**

—Bákixu? Háorrek sakelako teléfono gánera preguntaten yon naz ta esplikaziño nabie emon dost dendarik.

—Ta ulertu dozu ezer?

—Bai, **dana atrápa dot**, oiñ 'eskaintza berezi' dauke: teléfono kontratudune áukite komeni da, **ze hau da kontu**, kontratuez ezer paga barik émoten dotzue teléfono barri bet, **telebisiño ta email dékone, bákixu?**

—Telebisiño? Non?

—Telefonon ba.

—Ta zélan ikuskozu **telebisiño telefono bélarin dekozule?**

—... áiko! Ezast akorda hori **pregúntate.**

**Gauzak beste modu baten esateko / argituteko**

Esan gure dotena da...

Ta zelan esangotsut hobeto? ba...

Beste modu batera esanta...

Hau da...

Oiñ ulertuko zu hobeto...

Esangotzut zer dan gauze / kontu...

**Adibidek**

—Yon naz átzera preguntaten. **Oiñ ulértuko zu hobeto zelan dan gauze.**

—Bai, **esáostezu**, ze eztaít nik zélan ixen léiten hori.

—Ba 'entzungaillu' bátzuk iminten dakoz teléfono **ni, hau da, aurikular bátzuk bélarritera.**

—Ta horréaz manéjaten da email hori? —Email ez, **telebisiño! Ta manéja ez, entzun!**

—**Beste modu baten esplikaostezu ze ondiño eztot klaru ikusten zélan dan.**

# I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta



## Errotalde

### ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoa

## Txanpiñoi beteak

Jeneralean uste denaren kontra, perretxikoak urte osoan zehar hazten dira, baina egia ere bada, gainean daukagun udagoiena euren urrezko garaia dela. Nik urte osoan zehar dauzkagun txanpiñoiekin errezeta simplea proposatzen dizuet oraingoan. Hasteko zartaginean, txanpiñoien buruak olio eta gatz apur batekin buelta eta buelta egin. Bestetik, saltsa prestatuko dugu, oraingoan saltsa emultsionatuak deitzen diren horietako bat: arrautz bako mahonesa. Ontzi batean berakatzatza laminetan zatitua, perrexila (ondo txikitua) eta ozpin apur bat ipini. Gero apurka-apurka, eta irabiagailuri eragiten diogun bitartean, oliba olio gehituz joan mahonesaren testuradun saltsa lortu arte. Saltsa honekin txanpiñoiak bete eta labean berotu. Labetik ateratakoan, saltsak bitsaren antza hartuko duela ikusiko duzue. On egin! m

osagaiak (bi laguntzat)

dozena eta erdi txanpiñoi • biru berakatzatza ale • ospina perreila • gatz • oliba olio



itsaso arana / jolastokikoa

## Chardonay mahatsa

Frantziako Borgoñan du jatorria munduan estimatuenetakoa den mahats honek. Bere ezaugarrietako bat berez darion ke aroma arina da. Oso emaitza onak ematen ditu egurrean zahartzen denean, oxidazio maila txikia dauka eta. Bere beste ezaugarri azpimarragarria inguru berrietara egokitzeko daukan gaitasuna da. Izan ere, chardonay lantzen den lekuaren arabera aldatzen da, tokian tokiko ezaugarriak bereganatzeko ahalmen handia dauka eta. Nafarroa, Penedes, Somontano... Leku askotara zabaldu da eta, horregatik, kontseilu erregulatuak asko, nahiz eta kanpoko mahatsa izan, euren jatorri izendapenetan onartzen hasi dira aspalditik. Azkenik, esan behar da aroma dotorea daukala chardonayk, eta ahoan oso atsegina, primerakoa, dela. m



## Rincón Habana

Karibeko izpiritua daraman taberna



David Gordillo, "El Indio", jabea

David Gordillok edo "El Indio", herrian ezagutzen duten bezala, argi utzi gura du hasieratik Rincón Habana ez dela taberna kubatarra. Halere, herrialde harez lotura estua daukala argi dago, jarri dion izenagatik horrela ematen du behintzat. "Lagun batek eta biok ireki genuen taberna eta, Kubara bidaiari egin gura genuenez, izen hori jartzea otu zitzaigun. Hala eta guztiz ere, onandik ez naiz joan... Datorren urtean, agian!", azaldu du gazteak.

Lokaleko dekorazioan ere nabari da jabeak Karibeko ikutua eman gura izan diola. Oso giro atsegina ematen diote lekuari sabaitik eskegita dauden eguzkiloreek eta hormetako argazkiek. "Costa Ricakoak dira irudi horiek. Erositakoak dira, baina Kubara joango

naizenean nik atanako ditut argazkiak hemen eskegitzeko".

David harro dago tabernan jartzen duen musikaz. "Ez dira doinu kubatarrak, baina lokal honek zerbait ona baldin badauka, hori musika da". Asteburuetan giro ona egoten da beraz. "Alboko lokalakaz harreman oso ona daukagu eta horrek ere laguntzen du".

Eguen guztietan, gainera, "Garagardoa-ren Eguna" da Rincón Habanan. Garagardoa merkeagoa da egun horretan (Estrella, Vol-damm, Coronita, San Miguel...) eta, eguraldia ona denean, tabernak daukan terraza ederean dasta daitezke edariok. m

RINCON HABANA  
Sertutxa, 9 - Sopela

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asado r



- Zabalik egunero
  - Eguneroko menuak
  - Enpresa menuak
  - Menuak nornberaren gustura
  - Egunero karta berezia
  - Gaez dastatzeko menua
- astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

KONTXI  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



**prentsa • aldizkariak**

GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]

**URA**

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Izugarri politik dira Euskal Herriko basoak eta oihanak garai honetan: Irati, Urbasa, Gorbeia... Zure bisita merezi duten lekuak badaude. Ez zara damutuko, udazkeneko koloreen ezandaren lekuko izatea ez da edonolako gauza.

**AITZURRA**

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Ez duzu jateko koipetsua gogoko, baina olio pilo batez sukaldatzen duen jateke horretara joan besterik ez duzu. Zerbait jan egin behar duzu eta etxean ez daukazu janaria prestazeko astirik. Sentitzen dut!

**GARIA**

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Kotxea erosi gura duzu? Begiratu oso ondo nori emango diozun dirua, sorpresaren bat izan dezakezu-eta... Dirutza da eta merezi du tentuz ibiltzea, badaezpada ere, ala euroak sobera daukazazu?

**META**

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Zer egingo duzu orain langabezian zaudela? Amaxuren altzora itzuliko zara? Buztana hanka artean daukazula sartuko zara etxean, baina lasai egon, denek ulertuko dute eta gurasoak pozik egingo dira zu berriz ikustez!

**OTSOA**

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Lana bilatzea ezinezkoa egiten zaizu. Zenbat denbora daramazu horretan? Hilabete bi, sei, urte bat? Ez amore eman, gauza horiek gax daude egunotan. Bitartean, zure denbora libreari etekina atera, eskertuko duzu.

**HOSTOA**

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Telefonoz berba larregi egiten duzu. Ez al zara konturatzen hilabete bukaeran izugarriko dirutza ordaindu beharko duzula? Zeure burua kontrolatu, bestela ez duzu onarrikoak diren gauzak erosteko sosik izango.

**LASTOA**

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Uda joan da eta bazaude eskiatzen joateko desiatzen. Oraindik goizegi da motel! Hotza heltzea itxaron beharko duzu, pazientziatz hartu. Bitartean, edurretara joateko ekipo berria erosteko aurrezten has zaitzake. Puf!

**HAZIA**

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Zertan ibiltzen zara gauetan hain berandu arte? Goizean bikotea ibiltzen da izareti tiraka zu itzartu nahian. Zentzu apur batez jokatu eta ohera arinago joan, hurrengo egunari etekin handiago aterako diozu.

**ADARRA**

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Lanetz gainezka zabilta azkenaldi honetan. Nagusiari zerbait esan beharko diozu, ezin duzu-eta erantzukizun osoa zure gain hartu. Ez da ona osasunerako ezta bururako ere. Hainbeste behar egiteak ondorio latzak dakartza.

**EGUZKIA**

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Zenbat bider esan dizu amak arropak plantxatu barik ez irteko? Zelako itxurak! Zertarako balio du halako gauza karuak erostea gero edozein modutan erabiliko badituzu? Estiloa apur bat jagon mesedez...

**IRATZEA**

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
"Rock Star" baten moduan sentitzen zara: ule luzea, praka estuak, betaurreko ilunak... Zure idoloak gurtzen ematen duzu eguna. Kantatzea bakarrik falta zaizu, baina, egia esateko, ez zara bertute horregaz jaio.

**NEGUA**

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Ez zara inoiz isiltzen... Ez al zara konturatzen ingurukoak aspertzen dituzula? Neka-neka eginda daude zure berba jariora entzutez. Atsedena hartu, txistua irentsi eta besteak entzuten ikasi, edo behintzat saiatu!



**mungia**  
oKINdegia

*Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Egiatzkoak. 2. Ukanak. R bikoitza. 3. Abedera grekoko letra. Hezetasuna kendu. 4. Ipar. inurriak, txindurriak. 5. Indioaren ikurra. Putre. Nitrogenoaren ikurra. Kontsonantea. 6. Bihotz taupaden maiztasunaren lastertzea. 7. Ahuntzaren ar. Potasioaren ikurra. Ipar., izu. 8. Sufrearen ikurra. (Her.) Nian. Bibliako pertsonaia, onanismoari izena eman ziona. 9. Ugaztunen txegoste hodiko errai. (Zah.) Zakurra. 10. Izaria. Iridioaren ikurra.

Goitik behera

1. Ohikoa ez den gauza. 2. Bizk., itsusiak. Musika nota. 3. Noka, naiz. Gabe utzi. 4. Noren atzizkia, pluralean. Mesopotamian hedatu zen inperio bateko biztanle. 5. Itxurak, tankerak. (Errep.) Begien distira. 6. Kuiak. Berrogeita hamaika. 7. Potasioaren ikurra. Kriptonaren ikurra. Kontsonantea. Zero. Bokala. 8. Bizk., oraindik. 9. Ipar., zainketa. Neurri. 10. Potasioaren ikurra. Ekialdeko Europako estatu bateko biztanle.

Soluzioak

H	I	V	I	R	H	U	E	N
V	R	O	T	I	V	D	R	U
N	V	N	O	N	I	N	S	
I	Z	I	K	R	E	R	A	V
V	I	D	R	A	K	I	K	T
R	N	I	S	A	N	I		
K	A	R	A	U	N	I	X	
U	T	A	K	X	U	X	T	A
R	R	A	K	A	N	A	K	R
K	O	A	K	O	A	K	O	A



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Galdakaon jaioa
- Txirrindulari profesionala da
- Garaipen ozena lortu berri du Bueltan

> Aurrekoaren erantzuna: Vanessa Sanchez  
> Irabazlea: **Nerea Zabala\* (Getxo)**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea zlg, Algorta  
Telf. erreserbak: 94 460 64 13



Bittor Egurrola

Areetako Raspas arraun taldea, 1940

**Topatu dugun** Areetako arraun taldearen topatu dugun argazkirik zaharrena duzue goikoa. Zaharragorik egongo da, izan ere, 1919an sortu zen taldea. Rosa Gorbeña andre areetarrak erosi zien lehenengo trainerua eta arraunlariek euren esker ona adierazteko arrosa kolorea aukeratu zuten taldearentzat. Eta ez hori bakarrik, estropadetan brankan arrosa bat eramaten zuten beti. Taldeak bere ibilbide luzean lortu duen garaipenik garrantzitsuena Espainiako Trainerila Txapelketa izan zen, 1945ean. Goiko argazkian azaltzen diren Juan Agirrezabalagak eta Angel Otxoantesanak estropada gogoangarri hartan parte hartu zuten.

**Aurretik atzera:** Adrian Otxoantesana (GB) patroia, Juan Agirrezabalaga Gorrion (GB), Angel Otxoantesana Totoa, ?, ?.



AIXERROTA BHI  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztaian

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



[aitormenak]

**JULIAN AZKARATE** > aktorea

“Akziodun film bat egitea gustatuko litzaidake”

Testua: **Oiane Moran**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Ipurterrea.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Akziodun film bat egitea gustatuko litzaidake, gerratako bat, baina baita komedia bat ere.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Onassis, oso pertsona interesgarria iruditzen zait.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Pilo bat dauzkat. Besteak beste, orduan heltzea ezinezkoa zaidala esango nuke.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Irtetea gogoko dut...

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Bai, Tarifara. Oso leku lasaia da.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna.**

Donostian bizi naiz, baina Laga, Laida eta Mundakako zonaldea asko gustatzen zait.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Aktore bezala bizi ahal izatea.

**Hondartza ala mendia?**

Hondartza, baina surfagatik soilik. Halere, kontrajarria badirudi ere, mendian bizi naiz.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Gezurra.

**Zein da ikusi duzun azken filma?**

*Harry Potter*, oso entretenigarria da.

**Eta irakurri duzun azken liburua ?**

*Manual mínimo del lector*, Dario Forena. m

**LABURREAN**— 1977an New Yorken jaiotako argentinar hau Donostian bizi da orain, Madrilén denboraldi bat igaro ondoren. Esparru oso ezberdinetan egin izan du behar: publizitatea, DJ... *Vaya Semanita* saio arrakastatsuko aktorea da eta bere denbora librean surfean ematen du. Telebista asko ikusten ez duen arren, pelikulak gogoko dituela aitortu du aktoreak. Gurean integratzea ez zaio batere kostatu Juliani, bere ustez, euskaldunok eta argentinarrek antzeko ohiturak ditugu-eta.

**XXIV ANTZERKI JARDUNALDIAK** JORNADAS DE TEATRO  
**GETXO**  
2006



urria 12-22 octubre

informazioa: [info@getxokultura.com](mailto:info@getxokultura.com) • tfno. 94 491 40 80

